# anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2016ko abenduaren 23a
15. urtea
659. alea
www.anboto.org
TOKIKOM


## Kultura

Akrobaziak, malabareak eta umorea batuko ditu 'Maluta' zirku jaialdiak San Agustinen > 11





Durangoko emakume talde batek Hiri Debekatuaren Mapa eguneratu du. Azaroaz geroztik egiten ibili diren prozesuan 33 puntu beltz eta gorri aurkitu dituzte herriko hainbat gunetan. > 4-5

# Puntu ilunak argituz

## Gabonetako loteriako 20 milioi euro Abadiñora

66.513 zenbakiak atzoko Gabonetako Loteriaren zozketako sari nagusiaren koska handi bat, 20 milioi euro, Abadiñon utzi du. David Lobato Traña-Matienako administrazioko arduradunak adierazi duenez, "banaka saldu dira 50 dezimoak, eta herritar asko izango dira onuradun". Perez-Revuelta familia da dezimo horietako bat erosi duena. Julia Perez alabak atzo azaldu zuenez, tokatu zitzaiela jakin eta berehala joan ziren bankura. > 8









**Durango > 3**
Bonbardaketaren erantzuleak epaitegietara eraman gura dituzte

**Durangaldea > 9**
Lanbide Heziketa Institutuaren alde egin du EH Bilduk

**Otxandio > 9**
Nagusientzako auzo etxea eta udal azpiegiturak egingo dituzte

**Durango > 2**
71 familiak jaso dute pobrezia energetikoa gainditzeko laguntza

## Herririk herri

# Aramotzen “udalaren pasibotasuna” salatu, eta Fumbarri auzotik kentzea eskatu dute

### Asteburuan garbiketa egin zuten auzolanean, eta auzo elkarteek aldarrikapenak zabaldu dituzte

**DURANGO** Markel Onaindia

Aramotzeko auzotarren artean ez da giro. Asteburuan hainbat bizilagunek auzolana egin zuten etxeen eta saihesbidearen arteko eremua garbitzeko, eta hori aprobetxatuta, auzoaren egoerarekiko “udalaren pasibotasuna” salatu zuten prentsarako oharrean. Gero, martitzenean, prentsaurrekoa eskaini zuten Herria eta Aramotz auzo elkarteek, eta garbiketaren gaiaz aparte, beste aldarrikapen batzuk plazaratu zituzten. Esaterako, Fumbarri enpresa auzotik ateratzea eskatu zuten.



Eugenio Gorroño, Txema Belar eta Periko Varela, martitzenean, prentsaurrekoaren ostean.

Fumbarrik isurtzen duen keaz kezkatuta daudela esan zuten, nahiz eta kutsadura neurririk eduki ez. Gainera, galdategian egun batzuetan goizeko zazpietan zein gaueko hamaiketan ateratzen dutela zarata kritikatu zuten. Auzoa handitu egin dela gogoratu zuten. “Amilibia ere herri erdian zegoen, eta topatu zitzaion irtenbidea”, esan zuen Eugenio Gorroñok.

#### Gazteen iniziatiba

Saihesbide ingurua garbitzeko auzolanaren harira, gazte batzuek, iniziatiba dela-eta, Gabonen ostean jarraituko dutela azaldu zuten. Inguruak garbitzea exijitu diete udalari eta Aldundiari. “Aldundiko norbaitek hemen etxea edukiko balu, hau ez litzateke horrela egongo”, kritikatu zuen Gorroñok. Gainera, txaboletan ere bizi da jende bat, duela 8 urtetik hona, eta horrek konponbide bat behar duela uste dute, Txema Belarren esanetan.

Udala auzoa eraberritzeko azterketa garatzen dabil, eta auzotarrak azterketa horretan parte hartzera gonbidatu dituzte elkarteek.

## Balio katastralak aldatzeko eskea egingo du udalak

**DURANGO** M.O.

Zonifikazioaren arabera ezarritako balio katastralak aldatzea eskatuko dio udalak Aldundiari, San Fausto, Aramotz eta Alde Zaharreko auzo elkarteek landutako mozioa onartu eta gero. EH Bilduk, Herriaren Eskubideak eta PPk babestu zuten mozioa martitzeneko bilkuran; EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren.

“Ez dugu ulertzen Aldundiak egindako zonifikazioa”. Berba horiek erabili dituzte auzo elkarteek mozioan. San Fauston eta Aramotzen metro karratua 869 eurotan ezarri du Aldundiak, eta Alde Zaharrean 1.010 eurotan. Bitartean, adibidez, Ezkurdin 749 eurokoa da balioa. Etxeen kokalekua, kalitatea, merkatu balioa eta zerbitzu publikoen gertutasuna baloratuz gero, auzo elkarteei ez zaie bidezkoa iruditzen desberdintasun hori.

Onarpenagaz, balioak berrikusi ahal izango dira.

# 40 familia gehiago pobrezia energetikoaren itzalean

### Enpresek argi etenaz abisatzea gura du udalak



JAEDeko Jose Carrera eta Covadonga Noval, eta Pilar Ríos, udaletxean.

**DURANGO** M.O.

2015eko urritik 2016ko martxora bitartean, Durangoko eta Iurretako 71 familiak jaso zuten pobrezia energetikoari aurre egiteko laguntza. Aurreko urtean 31 familia zeuden egoera horretan; beraz, 40 familia gehiago daude pobrezia energetikoaren itzalean. Gainera, 30 bat etxetan umeak bizi dira, JAEDeko Covadonga Novalek emandako datuen arabera.

JAEDek Durangoko Udalaren eta La Caixaren laguntzaz gestionatzen du pobrezia energetikoari aurre egiteko programa. Banketxeak 6.000 euro ipintzen ditu, eta udalak 24.500. Izan ere, beharrizana ikusita, instituzioak 67.000 eurotik 91.000ra handitu zuen JAEDi ematen dion diru-laguntza. Diru horregaz guztiagaz, probrezia egoeran dauden hainbat familiari jatekoa eta dirua errazten die elkarteak.

> Gainera, 30 bat etxetan umeak bizi dira, JAEDeko Covadonga Novalek emandako datuen arabera

> Riosen iritziz, “onartezina” da familia batzuk neguan argindarrik barik egotea

#### Enpresekin tratua

Pilar Ríos alkateordearen esanetan, aurten “pauso bat aurrera” egin gura dute ekimenagaz. Elektrizitate enpresekin akordiora heldu gura dute, argia mozteko erabakia hartzen dutenean udalari abisua emateko. “Egoeraz informatzeko eskatuko diegu, guk lan egin ahal izateko”. Beraz, faktura ordaindu ezin dabilenari unean bertan laguntzea da euren helburua.

Riosen iritziz, “onartezina” da familia batzuk neguan argindarrik barik egotea, eta hotza gaixotasun askoren oinarrian dagoela ohartarazi du.

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2016ko abenduaren 23a
14. urtea - 659. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

**Laguntzaileak:**
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

# Lehen pausoak bonbardaketaren erantzuleak epaitegietara eramateko

Argentinako kereilagaz bat egiteaz gainera, Martxoaren 31ko bonbardaketaren erantzuleak dagozkien auzitegietara eraman gura dituzte



Ahaztu Gabeak ekitaldia antolatzen du, urtero, 1936 Kultur Elkarteak Kurutziagan.

**DURANGO** Jone Guenetxea

1936ko martxoaren 31ko bonbardaketek gizarte zibila izutzea izan zuten helburu. Mola generalaren aginduetara, gerra hegazkin italiarrek gupidarik barik egin zuten eraso Durangon. Ehunka hildako eta beste hainbeste zauritu eragindako erasoak ez du orain arte lekurik izan auzitegietan. 80 urteren ondoren, baina, ANBOTOk jakin ahal izan duenez, Durangoko Udalak auzibide bi zabaltzeko pausoak emateko asmoa du. Ekimen hau adierazpen instituzional baten bidez ezagutzera emango du udalak abenduaren 28an, 16:30ean, Kurutziagako eskulturaren ondoan.

Alde batetik, Argentinako kereilagaz bat egitea da helburua. Ildo horretatik, Argentinako auzi-jartzeari atxikitu gura diren frankismoaren kaltetu durangarrei informazioa eta aholkularitza emango dizkiete. Bestalde, Durango 1936 Kultur Elkarteari laguntza eman gura diote, dagokion epaitegian bonbardaketaren erantzuleen aurkako auziak aurrera egin dezan.

Datorren martxoaren 31n bonbardaketaren 80. urtemuga gogora ekarriko dute Durangon. Urtero, egitaraua osatzen dute bonbardaketa sufritu zutenak oroitzeko. Udalaren asmoa da egitarau horretako ekimen eta ekintza guztiak koordinatuko dituen batzorde berezi bat sortzea.

### Durango 1936

Pauso honen inguruan Durango 1936 elkarteari galdetuta, Andoni Barreñak azaldu duenez, "duela hiru urte mozioa aurkeztu genuen udalean, eta ordutik ez dugu harreman handirik izan udalagaz. Datorren urtean 80. urteurrena izango dela-eta, apirilean ekimen honi heldu genion eta udalagaz berba egiten hasi ginen". Barreñak gaineratu duenez, bonbardaketan kaltetuak sentitzen direnak datorren asteko ekitaldian presente egotea gurako lukete.

# "Sapuetxe eraldaketa handi batean dago"

Sapuetxekoek ez dute begi onez ikusi udalak 425.000 euro ipini izana eraikina botatzeko

**DURANGO** M.O.

Sapuetxe eraikina botatzeko partida 425.000 eurora igo du udalak, baina, hala ere, oraindik ez dago eraisten hasteko datarik. Sapuetxeko kideek ez dute begi onez ikusten inbertsioa, eta informazio kanpaina bat hasiko dute. "Kontuan edukita eraikina jabego pribatukoa dela eta udaleko dirua publikoa dela, ez dugu ulertzen zergatik hartzen duen udalak gastu hori bere gain", esan du Irantzu Zuazuak. Jabego pribatukoa izateaz aparte, Iparraldeko Ur Konfederazioak eta URA agentziak ere badute ardura, eraikin azpitik erreka pasatzen delako. Udaleko bilkuran kritika bera egin zuen Dani Maeztuk (EH Bildu).

Gaztetxetik kultur espaziorako jauzia egin du Sapuetxek, eta bizirik dagoela diote. "Eraldaketa handi batean dago. Mugimendua bizitu denean, presioa egiten hasi dira", esan du Jon Unzuetak. Adin ugaritako jendeak parte hartzen du, eta ekintzak ere anitzak dira: La Noche Boluda hileroko antzerki saioa, Umerri hezkuntza egitasmoko afariak, umeen jolas-txokoa, Kurdistanen aldeko ekimenak... Rio De Orokoei ere lekua erraztu zieten azoka egunetan.

### Elkarbizitzaren alde

Gainera, elkarbizitzaren aldeko apustua egin dute. Ordutegia auzokideekin adostu dute, adibidez. "Jende askok ezin zuen ikusi Sapuetxe, eta guk hori argi daukagu. Baina jada ez da arazorik sortzen", dio Gorka Zuazuak. "Ez da lehengo espazio iluna; gauza politak egiteko espazio bat da", azaldu du Irantzuk. Eguaztenetan egiten dituzte batzarrak, 18:00etan.



Sapuetxeko hainbat kide, eguaztenean.

# 65 nagusi hasi dira udal jantokia erabiltzen

75 urtetik gorakoei jateko zerbitzua ematen diete

**DURANGO** M.O.

Durangoko Udalak nagusientzako jantokiaren proiektua ipini zuen martxan urrian, batez ere bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoei jateko zerbitzua emateko. Elikadura egokia eskaintzea eta nagusien harreman sozialak sustatzea da helburua, zahartzaro atsegina lortzeko bidean. Prentsaurrekoan azaldu dutenez, 65 lagun hasi dira erabiltzen jantoki publikoa. Egunero 11 bat lagun joaten dira batez beste bazkaltzera. Erabiltzaileen batez besteko adina 81 urtekoa da, eta %62 bakarrik bizi dira. Gehienak, 65etik 40, emakumeak dira.

Bazkaldu gura dutenek karneta egin eta aurretiaz hartu behar dute lekua, gutxienez egun biko tarteagaz.

> Erabiltzaileen batez besteko adina 81 urtekoa da, eta %62 bakarrik bizi dira

Hile osoko menua ikusgai dago egoitzan, eta horrela, aukeraketa egin ahal dute erabiltzaileek. Interesdunek 94 620 04 38 telefonoan topa dezakete informazioa.

# Gabonetako apaingarriak egiteko, tailerrak antolatu dituzte

**IZURTZA** J.Derteano

Datorren asteko martitzenean Gabonetako apaingarriak egiteko esku lanak antolatuko ditu Izurtzako Udalak liburutegian. Ume eta gaztetxoei bideratutako tailerrak izango dira, eta nagusiei ere parte hartzeko gonbita egin diete. 17:00etan hasi eta 19:30era bitartean, mota askotako teknikak erabiliz Gabonetako zuhaitzetan jartzeko apaingarriak zein bestelakoak egiten ikasi ahal izango dute.

Ekimen honen helburua Izurtzako liburutegia ezagutara ematea ere bada, hau da, gaztetxoei herriko liburutegira joateko ohitura barneratzea.

# Dispertsioari amaiera eman gura dio Berrizko Udalak

Etxeratek aurkeztutako mozioagaz bat egin dute

**BERRIZ** M. Zuazubiskar

Urruntze eta sakabanatze politikei amaiera emateko asmoz, Etxerat elkarteak aurkeztutako mozioagaz bat egin dute EAJko eta EH Bilduko zinegotziek.

Aste honetan egindako bilkuran udalak dispertsio politikaren eta urruntzearen berehalako desaktibazioa eskatu zuen, "senide gehiago errepideetan kaltetu ez daitezen". Bestalde, udalbatzarrak "pertsona guztien giza eskubideen errespetua" exijitu zuen, eta akordio hau Frantziako eta Espainiako gobernuei eta Espetxe Erakundeetako arduradunei helaraziko dietela jakinarazi zuten.

Horrez gain, EH Bilduko kideek dei egin zieten berriztarrei, bi asterik behin Urtiaga

> Frantziako eta Espainiako gobernuei akordioaren berri emango die Berrizko Udalak

Plazan egiten duten kontzentrazioetan parte hartzeko, eta abenduaren 31n 12:30ean Berrizen egingo duten kontzentrazioagaz eta urtarrilaren 14an 17:30ean Bilbon egingo den manifestazioagaz bat egiteko.

# "Prozesu honetan herriko emakumeen hitza jasotzea izan da garrantzitsuena"

## Durangon egindako azken Hiri Debekatuaren maparen arabera, herrian 33 puntu beltz eta gorri daude



Zapatuan egin zuten prozesu honetako azken tailerra Durangoko Andragunean.

**ERREPORTAJEA** M.Zuazubiskar

Herriko kaleetan lasai ibiltzeko esperantzagaz Durangoko emakume talde batek, herriko Berdintasun Komisioak eta Kontseiluak bultzatuta, Hiri Debekatuaren mapa eguneratu dute. 2006ean, emakumeen segurtasunerako arriskutsuak izan zitezkeen herriko guneak identifikatu zituzten, lehen aldiz. Ondoren, hiru urte geroago, mapa hura hartu eta hainbat aldaketa egin zituzten. Aurten, berriz, azken eguneraketa egin diote, eta bertan hainbat puntu beltz (segurutzat ematen ez diren guneak) eta puntu gorri (egunerokotasuneko bizitzan oztopo diren edo diseinu desegokia duten eremuak) identifikatu dituzte.

Azaroan martxan jarri zuten prozesuak fase ezberdinak izan ditu. Ane Abarrategi eta Itsaso Larramendi teknikarien hitzetan, "prozesu honetan herriko emakumeen hitza jasotzea izan da garrantzitsuena". Hasieran, herriko emakumeek Durangoko kaleetatik miaketa tailer bat egin zuten, puntu beltzak eta puntu gorriak detektatzeko asmoz. Ondoren, puntu horiek mapan jaso zituzten, eta azkenik, aztertzetik proposatzera pasatu ziren, hau da, beraiek puntu horiek nola eraldatuko lituzketen adierazi zuten.

Abarrategi eta Larramendiren laguntzagaz, hiri-plangintzan genero ikuspegia txertatzen ahalegindu dira emakumeak, eta Abarrategiren hitzetan, "lan txukuna" egin dute.

### Mapa eraldatua

Hilabete hauetan egindako ikerketaren ondoren, 33 puntu beltz eta gorri dituen mapa egin dute Durangon. "Herriak eraldaketa handiak jasan ditu, eta beharrezkoa zen eginda zegoen Hiri Debekatuaren mapa eguneratzea", adierazi du Abarrategik. Hala ere, mapan sartu ezin izan dituzten arren, azken urteetan hazten joan da Durango, eta puntu gehiago ere aurkitu dituztela jakinarazi dute.

Bestalde, aurreko aldietan ez bezala, oraingo mapan diagnostikotik proposamen fasera jo dutela adierazi dute Tippi estudioko kideek. Prozesuko azken tailerrean puntu beltz eta gorriak dauden herriko lau gune eraldatzeko eskatu zieten teknikariek parte-hartzaileei. Beraiek eguneratutako mapari begiratuta, eta beraien jakintza aplikatuta, gune seguruagoak nola sortu proposatu zuten parte-hartzaileek.

# *"Irtenbide erraza duten puntu batzuk aldatu gabe daude"*

## Hiru emakume durangar herriko beste hainbat emakumegaz ibili dira lanean



**Alaitz Berriozabalgoitia, Bego Elejabarrieta eta Julene Idoate durangarrek Hiri Debekatuaren Mapa eguneratzeko prozesuan parte hartu dute. Elejabarrieta hasiera-hasieratik egon da prozesuan sartuta. Berriozabalgoitia eta Idoate, berriz, prozesua hasita zegoela batu ziren Tippi estudioak eskaini duen tailerrera.**

**Zelan sentitu zarete mapa eguneratzeko prozesuan?**

**Alaitz Berriozabalgoitia:** Egia esan, gustura eta integratuta sentitu naiz. Norberak horrelako mapa batean bere ekarpena egin eta norberaren iritzia kontuan hartzea oso positiboa iruditzen zait. Herritarrok honetan parte hartzeko aukera izatea oso aberasgarria izan da.

**Julene Idoate:** Prozesua oso polita izan da. Gainera, herritarrok gure iritzia emateko aukera izatea niri ere garrantzitsua iruditu zait.

**Bego Elejabarrieta:** Giro oso ona eduki dugu tailerrean, eta hori ezinbestekoa da talde lanean aritzeko. Gainera, hainbat adin tarteko jendea egoteak erraztu egin du lana. Horrez gain, teknikariek prestatu duten material bikainak eta gure iritziak plazaratzeko aukerak mapa txukun bat egiteko balio izan dute.

**Eguneratu duzuen mapari begiradatxo bat emanda, ze ondorio ateratzen dituzue?**

**J.I.:** 33 puntu beltz eta gorri aurkitu ditugu, baina badakigu askoz gehiago ere badaudela. Profil ezberdinetako jendeak tailerrean parte hartuko balu, ez genuke ahulgune hori izango. Hala ere, tailerra oso positiboa izan da, gure herria aldatzeko lanean hasi baikara, herritarron iritziak kontuan hartuta.

**A.B.:** Alde batetik konklusio negatibo bat ateratzen dut, irtenbide erraza duten puntu beltz batzuk oraindik konpondu barik daude eta. Baina, bestalde, ikuspuntu kritiko bategaz puntu hauek aztertzea oso aberasgarria iruditu zait. Espero dugu hemen egin dugun lanak zerbaitetarako balio izatea eta hurrengo baterako puntu horiek denak desagertuta egotea.

**B.E.:** Tailerrean hirigintza gure eguneroko bizitzagaz oso lotuta dagoela ikusi dugu, eta, askotan, konturatzen ez garen arren, ahulgune handiak ditu gure herriko hirigintzak. Hala ere, marko teoriko batetik praktikara jotzen badugu, aldaketa posible batzuk erraz egin daitezkeela ikusi dugu, eta hori guk egindako mapan ere ageri da. Gainera, aldaketa txiki horiek eginda, durangarron bizi -kalitatea asko hobetu daiteke.

**Zuek mapa eguneratuta, orain noren esku dago puntu horiek aldatzea?**

**A.B. :** Orain udalaren esku dago proiektu honegaz jarraitzea, beraiek dute azkenengo hitza. Horrelako tailer bat proposatuta, gure hitza kontuan izango dutela iruditzen zait, eta horrela izan dadila espero dut, gure ilusio eta asmo on guztiagaz lan egin baitugu.

**B.E.:** Udalak apustu polita egin du tailer honegaz, eta ekimenagaz aurrera jarraitu dezatela espero dut. Gure proiektuekin zerbait egiten badute, itzela izango da guretzat.

# Egunerokoan oztopo diren eta segurtasunik eskaintzen ez duten 33 puntu Durangon

Pagasarri kalean eta trenbide inguruko orubean aurkitu dituzte puntu beltz eta gorri gehien

**PUNTU BELTZAK**

**1** San Inazio auzoa > etxe irla barrualdea
**2** San Inazio auzoa > igarobide estaliak
**3** Francisco Ibarra kalea > etxe irla barrualdea
**4** Murueta – Torre auzoa > igarobide estaliak
**5** Sasikoa kalea > igarobide estaliak
**6** Bidegorria
**7** Txibitena auzoa > arkupeak
**8** Txibitena auzoa > arkupeak
**9** Aramotz auzoa > Eroski atzealdea
**10** Askatasun etorb. atzealdea > Tren geltokia
**11** Geltoki kalea
**12** Zabale kale atzealdea > Zabalarra eskola atzealdea
**13** Andra Mari kalea > txizatokia
**14** Kanpatorrosteta kalea > Unzuetako igarobide estalia
**15** Monago Torre kalea > aparkalekuko tunela
**16** Komentukale kalea
**17** Tabira kalea > ibai ondoko pasealekua
**18** Tabira elizaren elizpea

**PUNTU BELTZ ETA GORRIAK**

**19** Kirolene Kirol Ikastetxea
**20** Ermodo Galeriak > igarobide estalia
**21** Pagasarri kalea > BOE berrien ingurua
**22** Oiñiturri kalea
**23** Galtzareta kale atzealdea

**PUNTU GORRIAK**

**24** Zabarra kalea
**25** Sasikoa kalea > parkea
**26** Alluitz - Estanislao Labairu kalea > Plaza
**27** Trenbide inguruko orubea
**28** Etxezarreta parkea
**29** Kurutziaga ikastola atzealdea
**30** Urko kalea > blokeen arteko espazioa
**31** Ramon Rubial - Montorreta kalea > Parkea
**32** Kuartela
**33** Zumar kalea > txaleten ingurua




**MIAKETA IBILBIDEAREN EMAITZA**




**ERREPORTAJEA** M.Z.

Herriko emakume talde batek egunerokotasuneko bizitzan oztopo diren eta segurtasunik eskaintzen ez duten 33 puntu identifikatu dituzte udalaren eskuduntzakoak diren eremuetan.

Durangoko zenbait kaletan, herriaren kanpoaldean zein erdigunean, hainbat puntu beltz eta gorri aurkitu dituzte.

Oztopoak dauden eta seguruak ez diren guneak aurkitzeko, miaketa taldeko kideek hiru elementu nagusitan jarri dute begia: toki horren erabileran, gune horrek daukan esanahi sinbolikoan eta bertan dauden elementu fisikoek dituzten gabezietan.

Tailerreko parte-hartzaileek jakinarazi dutenez, herrian ibilbidea egiterako orduan egunerokoan ikusten ez dituzten hainbat gauzez ohartu ziren. Esaterako, herrian gune askotan argiztapen falta dagoela ikusi zuten, puntu askok itxitasun sentsazioa ematen dutela, oztopo bisualak nagusiak direla eta Durangon, askotan, arazoak gauez ematen direla.

Horrez gain, herriko toki asko etxebizitzen erabilerarako soilik eginik daudela edo toki askok momentu honetan erabilera konkreturik ez dutela nabarmendu dute tailerrean parte hartu duten herriko emakumeek.

## Arazoak kale ugaritan

Bestalde, Hiri Debekatuaren mapa honetako egileek jakinarazi dutenez, Durangoko azken urteetako eraldaketa urbanistikoek puntu beltz eta gorri berrien sorreran eragin zuzena izan dute. Horren adibide dira, Pagasarri kalean eta trenbide inguruko orubean dauden puntu guztiak.

Mapan argi ikusi daitekeenez, gaur egun Pagasarri kalea etxebizitzen erabilerarako soilik eginik dago, eta gune horretan argiztapen falta, oztopo bisualak, hiri altzari ez aproposak, komun publikoen beharra... dira nagusi.

Trenbide inguruko orubea, berriz, erabilerarik ez duen gunetzat identifikatu dute parte-hartzaileek. Gainera, bertako altzariak aproposak ez direla, espazio estalien eta zuhaitzen beharra ere badagoela eta gune degradatua dela nabarmendu dute, besteak beste.

# “Hirugarren Adineko arloak erronka berriei helduko die”

## Zerbitzuaren arreta bulegoa Durangoko Askatasun Etorbidetik Behargintzara aldatu dute

> ELKARRIZKETA J.G.

**Erretiroa hartu ostean, aukeraz betetako sasoi berri bat zabaltzen da. Bizitza berrasmatzeko une horretan Amankomunazgoaren Hirugarren Adineko sailak aukera ugari eskaintzen ditu. Ildo horretatik, zahartze aktiboa iraultza izan da arlo honen dinamizazioan. Orain, kudeaketari dagokionez, beste erronka bat dator. Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen dekretura egokitzea.**

**Hirugarren Adineko arloan eta gizarte zerbitzuetan, zein aldaketa aurreikusten duzue hurrengo urteetan?**

**Aitor Lopez:** Gizarte zerbitzuen kartera-dekretua kaleratu berri dute. Dekretu horrek arautzen du gizarte zerbitzuek zer eskaini behar duten. Zerbitzu horiek eskubide subjektiboak dira, eta Amankomunazgoak dagozkionak eskaini beharko ditu. Hurrengo urteetako erronka nagusia horixe izango da, legeak dioen horretara egokitzea.

**Hirugarren adinekoen atalean lege berri horrek zer ezartzen du?**

**A. L.:** Arlo horretan, gaur egun eskaintzen ez ditugun hainbat zerbitzu aurreikusten ditu. Esate baterako, eguneko zentroa. Egon badago, baina mendekotasun graduaren arabera, badaude autonomo direnak, baina mugan daudenak, eta zerbitzu horretan sartuko liratekeenak. Lege berriagaz, eguneko zentroak lehenengo mailako mendekotasuna dutenentzako tokiko erakundeen esku uzten dituzte. Kasu honetan, Amankomunazgoarena Berrizegaz batera antolatu beharko litzateke, eremuka banatuta baitago. Zerbitzu hau modu askotan eskaini daiteke. Beraz, aukera guztiak zabalik daude.

**Lege horrek beste zerbitzu batzuk ere tokiko erakundeen esku uzten ditu?**

**A. L.:** Etxe tutelatuak, esate baterako, tokikoen esku geldituko dira. Zaharren egoitzen kasuan, esate baterako, legeak esaten du Aldundien eskumena izan behar direla, eta badaude egoitzak kudeatzen dituzten udalak, Ondarroakoa eta Bermeokoa kasu.

**Hori zelan finantzatuko da?**

**A. L.:** Diru-funtsa dago Bizkaiko Foru Aldundian eta urte batzuetan finantziazioa izango da zerbitzua martxan jarri arte. Arazo handietako bat da diru-laguntzak zerbitzua martxan jartzeko direla, baina inon ez dela pertsonal gastua aurreikusten. Udalek kostu hori beraien gain hartu beharko dute. Gaur egun, erakundea dugun moduan asumitu behar dugu zerbitzu gehiago ematea, baina jakin gabe hori zelan antolatu eta koordinatu.

**Elkarteen bidez, zein lan burutzen duzue?**

**Marisa Bouzas:** Hainbat funtzio batzen ditugu. Besteak beste, mendekotasuna prebenitzea, zahartzaro aktiboa eta nagusien parte-hartzea bultzatzea eta pertsona nagusien irudia aldatzea daude gure helburuen artean.




Jasone Derteano, Begoña Uriarte, Aitor Lopez eta Marisa Bouzas.

> *“Jubilatuen profila zeharo aldatu da; orain bizitzaren azken zatiari zukua atera gura diote”*

**Elkarteen bidez, zein lan burutzen duzue?**

**Begoña Uriarte:** Elkarteekin lan egiten dugu antolaketan laguntzeko. Horrez gainera, urtean behin hamabi elkarteekin formakuntza programa bat ere egiten dugu. Beraz, formazioa eta dinamizazioa lantzen ditugu.

**Norbanakoentzako ekimenak ere antolatzen dituzue.**

**M.B.:** Herri bakoitzean tailerrak, ikastaroak, bisitak edota bidaiak antolatzen ditugu.

**B.U.:** Ekimen hauek irekiak dira, baina egia da elkarteei galdetzen diegula zertan parte hartu gura duten.

**Bego eta Marisa, 24 urte daramazue arlo honetan. Zelan aldatu da pertsona nagusien profila?**

**B. U.:** Profila zeharo aldatu da. Ekintzetan eta eskakizunetan asko igarri da. Lehen, pertsona bat jubilatzen zenean, lasai bizitzea eta atseden hartzea gura zuen. Baina guztiz aldatu da hori orain. Bizitzaren azken zati horri zukua ateratzea gura du orain.

**M. B.:** Ildo horretatik, Durangoko Udalagaz batera, Esperientzia Institutuan parte-hartzea bultzatzen dugu. Proiektu hau 55 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Urtarrilean hasiko den ikastaroan 20 pertsonak parte hartuko dute. Gazteenak 56 urte ditu, eta zaharrenak 76. Historia, kultura, teknologia...Jubilatu gazteek ez dute beraien burua jubilatuen etxeetan ikusten, eta, horregatik, jubilatu berri edo gazteen artean parte-hartzea bultzatzeko sortu zen. Hortik hainbat proiektu sortu dira, Bizidun elkartea, esate baterako. Sendabelarra taldea ere ikastaro horien ostean jarri zuten martxan.

**B. U.:** Durangoko Udalagaz Esperientzia Institutuaz gain, Zaindu programa dugu, senide zaintzaileei laguntza eskaintzeko.

**Aniztasun handia dago hartu-emana duzuen jubilatuen artean?**

**B. U.:** Belaunaldi oso ezberdinak zaku berean sartzen ditugu askotan. 60 urtegaz jubilatu zaitezke, eta zure herriko elkartean zure ama ere egon daiteke. Bakoitzak bere formazioa, bere espektatibak eta bere historia dauzka. Horregatik, guk denen beharrak asetzeko ekintzak antolatu behar ditugu.



# Urtarrilean Durangaldeko Esperientzia Institutuak ikasturte berria abiatuko du

Ikastaro hau elkarlanean antolatzen dute Durangoko Udalak eta Durangaldeko Amankomunazgoak



Esperientzia Institutua Behargintzan kokatuta dago.

Jubilatu berriek Durangaldeko Esperientzia Institutuan bizitzaren etapa berri horri ekiteko baliabideak aurkituko dituzte. Durangoko Udalak eta Amankomunazgoak elkarlanean koordinatzen duten *Claves para vivir participando en el mundo de hoy* ikastaroa urtarrilean abiatuko dute.

2009an martxan jarritako proiektuak jubilatu berri diren pertsonen parte-hartzea bultzatzea du helburu. 55 urtetik gorako pertsonek parte hartu dezaketen ikastaroak ikasleen formazioan ere eragin gura du. Hainbat arlotan jakin-mina duten pertsonek espazio honetan antzeko egoeran dauden beste pertsona batzuk ezagutzeko aukera izango dute.

Hurrengo ikasturtea urtarrilaren 9an hasiko dute. Astelehenetan 16:30etik 18:30era jarri dute hitzordua. Tailer hauen bidez, garapen pertsonalaren inguruan hausnartuko dute: abilidade sozialak, adimen emozionala eta beste hainbat esparru landuko dituztela aurreratu dute antolatzaileek.

Gaur egungo gizartearen inguruko gakoak ere landuko dituzte ikasturtean zehar: historia, kultura, hizkuntza, teknologia, globalizazioa eta beste hainbat gai izango dituzte berbagai. Antolatzaileek azaldu dutenez, parte-hartzea bultzatzeko tresnak ikasleen esku jarriko dituzte.

> Hurrengo ikasturtea urtarrilaren 9an abiatuko da; 16:30etik 18:30era izango da, astelehenetan

> Ikastaro honetan 56 eta 73 urtera arteko 20 lagunek parte hartuko dute Behargintzan

Hurrengo ikastaroan 56 eta 73 urte arteko 20 pertsonak eman dute izena. Antolatzaileek azaldu dutenez, horietatik hamar durangarrak dira, eta gainerakoak, eskualdeko herrietakoak.

## Zaindu, senide zaintzaileei bideratutako programa

Durangaldeko Amankomunazgoak, Durangoko Udalagaz batera, senide zaintzaileentzako Zaindu programa eskaintzen du. Esther Alonso psikologoa da arlo honen arduraduna. Zaintzaileei formazioa eskaintzen diete, taldeka zein banaka. Era berean, beharrizana dagoen kasuetan, laguntza psikologikoa ere ematen diete.

Zaindu programaren beste arlo bat sentsibilizazioa da. Mendekotasunen bat edo gaixotasunen bat duten pertsonen zaintza tradizionalki emakumeek hartu dute beraien gain. Zaintzaileen profila aldatzen badoa ere, oraindik ere emakumeak dira gehienak. Emakumeen eta gizonen arteko rol aldaketa gauzatzeko, beharrezkoa da ume eta gazteengan eragitea. Ildo horretatik, eskoletan sentsibilizazio programak jarri dituzte martxan. Era berean, zaintzaileei lagundu guran, boluntarioak prestatzen dituzte.

> Zaintzaileen profila aldatzen badoa ere, oraindik emakumeak dira gehienak

# Nagusilagun, 80 urtetik gorako pertsonei bideratutako zerbitzua

Duela lau urtetik programa hau Matienan, Zaldibarren, Elorrion eta Iurretan garatzen da

Urtarrilean Nagusilagun programaren ikasturte berria jarriko dute martxan Matienan, Zaldibarren, Elorrion eta Iurretan. Programa honen helburua 80 urtetik gorako pertsonen autonomia eta harremanak bultzatzea da. Era berean, mendekotasun egoerak ahalik eta gehien atzeratzea dute helburu.

Lau herrietan duela lau urtetik martxan jarrita dagoen egitasmoak astean ordu eta erdiko hitzordu bi aurreikusten ditu. Pertsona hauei egokitutako ekintzak burutzen dituzte. Gimnasia, memoria estimulatzeko ariketa mentalak, arreta, kalkulua, hizkuntza eta beste hainbat arlo lantzen dituzte.

**Gehienak emakumeak**

Nagusilagun programako parte-hartzaileen profilari dagokionez, gehienak emakumeak dira eta batez beste 84 urte dituzte.

> Gimnasia, memoriaren estimulazioa, ariketa mentalak eta beste hainbat arlo lantzen dira

%70,76 ez dira bakarrik bizi, eta egunero irteten dira etxetik. Hala ere, duten adinarengatik edo osasun arazoengatik, %21,20k bakarrik parte hartzen du beste ekintza batzuetan.



Asteon Zaldibarko Nagusilagun taldean ateratako argazkia.

# 20 milioi euro utzi ditu Matienan loteriako 66.513 zenbakiak

## Hiru loteria administrazioan saldu dituzte saritutako 50 txartelak





Batez ere saria jende askoren artean banatu delako, pozez gainezka zeuden atzo administrazioko arduradunak.

**ABADIÑO** I.E./M.Z.
Atzo Madrilen egin zuten gabonetako loteriaren zozketan saridun nagusia izan zen 66.513 zenbakiaren bost serie Traña-Matienako Hiru loteria administrazioan saldu zituzten. 66.513 zenbakidun 50 txartel horien artean, 20 milioi euro banatu ditu Espainiako Loteriak abadiñarren artean.

David Lobato Traña-Matienako administrazioko arduradunak adierazi duenez, Madrilgo administrazio bategaz trukean ekarritako bost serie izan dira saritutak. Administrazioko arduradunaren berbetan, “banaka saldu dira 50 dezimoak, eta beraz, askoren artean banatuko da saria, eta herritar asko izango dira onuradun”.

Gabonetako loteriaren sari nagusiaren txartel preziatu horietako baten jabe dira Juan Perez aita, Nieves Revuelta ama eta Julia, Marta eta Lorena alabak. 400.000 euroko saria jasoko dute, eta denen artean banatuko dute. Julia Perezek atzo emozionatuta aitortu zuenez, “saria tokatu zaigula jakin eta berehala joan gara bankura”.

## EH Bildu kritiko, eskualdeko OHZ altuenagaz

**ABADIÑO** I.E.
Abadiñoko Udalak eskualdeko OHZ (Ondasun Higiezinen gaineko Zerga) altuena duela kritikatu du EH Bilduk. Datorren urtean zerga horri dagokion zenbatekoan “herritar askok igoera galanta” izango dutela azaldu du EH Bilduk. Zerga hori ordaintzeko zailtasunak dauzkaten abadiñarrei laguntzeko, udalak diru atal bat bideratu dezala eskatu du EH Bilduk, eta nabarmendu du azaroaren 30ean udal gobernuko Abadiñoko Independienteek eta EAJk onartu zuten aurrekontuak ez duela ezelako laguntzarik aurreikusten.

EH Bilduk zabalduriko datuen arabera, orain arte baino %35,3 gehiago bilduko du udalak OHZren bidez (2.075.772 euro). Udalak Bizkaiko Aldundiko Udalkutxatik jasotzea aurreikusten zuen diru-kopuruaren bestekoa da udalak Ondasun Higiezinen Zergatik biltzea espero duena, EH Bilduk dioenez. Jaitsiera hori “zerga bidez konpentsatzea” ez da bidezkoa koalizioaren ustez. “Gobernu taldea egoera berrira egokitu beharko litzateke, ez herritarrak gehiago ito”, diote.

# Plan orokorra onartu dute behin-behinean

## Jaurlaritzara eta Aldundira bidaliko dute txostena



Eskola atzetik joango litzateke Kale Irekiak prozesutik jasotako saihesbidea.

**ATXONDO** Joseba Derteano
Hiri-antolamendurako plan orokorrari behin-behineko onarpena eman zioten asteleheneko udalbatzarrean. Lehenengo planari aurkeztutako alegazioen txostena bozkatu zuten. Alegazio batzuk aintzat hartu dituztela azaldu zuen Dabid Cobos alkateak. EH Bilduren botoekin onartu zuten txostena. EAJk kontra bozkatu zuen, atzera botatako alegazio batzuk eurenak zirelako. Orain Plana Jaurlaritzara eta Aldundira bidaliko dute. Apatako esparru publikoa berrantolatzeko Kale Irekiak prozesutik irtendako txostenak ez dio Planari “ia batere eragiten”, Cobosen esanetan. Planean sartu ez dutena eskola atzetik balizko saihesbidea egiteko lurrak dira. Orain zoru ez urbanizagarria da. Planaren onarpena “ez luzatzeko” jokatu dute horrela. Beharrik balego, aldaketa puntual baten bidez urbanizagarri bihurtu daiteke. “Tramite hori erraza da”, dio alkateak.

## Guatemalatik eta Perutik bisita jaso dute Elorrion

**ELORRIO** M.O.
Euskal Herriko ordezkaritza baten baitan, Elorrioko berdintasun teknikaria Guatemalan egon zen duela aste batzuk, eta joan zen astean eurak etorri ziren bisitan. Horrela, Elorrion berdintasunaren arloan egiten den lanketa ezagutu ahal izan zuten Guatemala eta Peruko feministek, eta Durangaldeko protokoloaren inguruko azalpenak ere entzun zituzten udaletako eta Amankomunazgoko teknikarien partetik.

Idoia Buruaga alkateak egin zien harrera ofiziala, udaletxean.

### Herriko emakumeekin

Horrez gainera, Elorri Lore, Lilika, Alargunen taldea eta Bilgune Feministako kideekin batzartzeko aukera ere eduki zuten Guatemala eta Peruko bisitariek.

Gero, herritik zehar bisita gidatu bat eskaini zieten elorriarrek, ingurunea ezagutzeko aukera izateko.

## Datozen asteetan Ziztada Gunea husteko agindua jaso dezakete

**ZORNOTZA** J.Derteano
Luis Urrengoetxea kalean herritar batzuek okupatuta duten Ziztada Gune Askea “datozen asteetan husteko arriskuan” dagoela ohartarazi dute Guneko kideek. Duela hilabete batzuk lokalaren jabeak zigor-arlotik jarritako salaketa “bertan behera geratu zen eta deliturik ez zegoela frogatuta geratu zen”, adierazi dute. Baina, jabeak bide zibiletik beste salaketa bat jarri duela informatu dute. “Lau lagun salatu ditu, eta horiei 6.000 euro inguruko ordainketa eskatu die lokalaren hustuketarekin batera”. Lokala “10 urtez erabili barik” dagoela diote eta, gainera,“ordenanantzaz kanpo dagoen lokala dela”.

Egoera horren aurrean, beren jarduera defendatu dute. “Ziztada Gune Asketik eutsi egiten diogu mundu guztiaren esku dagoen eskaintza kulturala balioesteari”, argitu dute.

## Urtarrilean hasiko dira ospitaleko horma eraikitzen

**ZALDIBAR** I.E.
Maiatzean, Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzak ospitaleko 3.448 metro koadroko lursaila laga zuten herritarren erabilerarako, eta berdegune bat atonduko du udalak bertan. Joan zen astean esleitu zizkioten berdegune berri hori hesituko duen horma eraikitzeko 174.455 euroko aurrekontuko lanak Lasuen enpresari. Udal gobernuak jakinarazi duenez, dike, portu eta urtegietan egoten direnen antzekoa izango da altxatuko duten horma. Altzairu eta kristalezko 2 metroko altuerakoa izango da.

## Hasi da sahararrei jakiak bidaltzeko kanpaina

**IURRETA** A. Basauri
Martxan dago saharar errefuxiatuen kanpamendura jatekoa bidaltzeko 2017ko elkartasun karabana. Herria auzo elkarteagaz elkarlanean, Iurretan ere batuko dira elikagaiak. EAEn, batez ere, honako jatekoa batzea eskatu dute: arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atuna eta sardinak. Kronpresak ere bai. Gura duenak galtzen ez diren bestelako produktuak ere eman ditzake.

Nagusien Etxean, Ibarretxe kultur etxean, Bidebarrieta kaleko udal bulegoetan eta herriko janari dendetan jasoko dira.

## Mari Domingi eta Olentzerori harrera, dantzan

**MAÑARIA** M.O.
Bihar, mañariarrek dantzekin egingo diete harrera Olentzerori eta Mari Domingiri. 09:00etan hasita, plazatik auzoetara joango dira abesten, eta gero, 18:00etan, plazara bueltatuko dira. Hantxe agertuko dira Olentzero eta Mari Domingi. Harrera horretan helduko da koreografien txanda; asteetan zehar entseatzen ibili dira Andra Mari taldekoak, hainbat gurasoren laguntzagaz.

Txokolatada prestatuko dute, eta poteoa ere egingo dute ostean, tabernarik taberna.

# Nagusientzako auzo etxea eta udal azpiegitura berriak egingo dituzte


Eskumako aldean Artekaleko 1,3 eta 5. zenbakietako eraikin biak eta orubea.

**OTXANDIO** Joseba Derteano
Andresa Landa fundazioak nagusientzako auzo etxe bat egingo du Otxandion. Urteetan lantzen dabilen asmoa Artekale kalean bere jabetzan duen eraikin batean gauzatuko du. Udalak bere jabetzakoa den beste orube bat du ondoan eta fundazioak proposamen bat egin zien: bi espazio horiek eta hirugarren eraikin bat batuz, gune hori denen artean eraberritzea eta nork bere beharrizanetarako erabiltzea. Azken udalbatzarren EH Bilduk (Gobernu Taldea) eta EAJk —udalbatzarra osatzen duten alderdi biek— aho batez onartu zuten proposamena.

Tamaina handiko proiektua da. Horregatik, alderdi baten konpromisoa barik, udal mailakoa izan zedila eskatzen zuen fundazioak, uneko agintarien gainetik geratuko zena. Proiektua apustu estrategikoa da udalarentzat. “Lehentasuna izango du” dio Urtzi Armendariz alkateak. Udal azpiegituretan dauden “premiei” aurre egiteko proiektua dela uste du Armendarizek. “Udaletxeko eraikina ondo dago, baina gabezia batzuk ditu, bai langileei, bai herritarren irisgarritasunari dagokienez. Kultur etxeak ere bere hutsuneak ditu”, gehitu zuen. Beraz, “hurrengo 25 bat urteetarako eraikin publikoen premia bideratuko lukeen irtenbidea izan daiteke”. EAJko Beñat Gorospe zinegotziak ere “aukera ona” dela eta herritarrentzako zerbitzuak “hobetuko” direla uste du.

Artekale kalean (1, 3 eta 5 zenbakietan) eta udaletxetik gertu daude eraikin biak eta orubea. Sasoi batean udalak eraitsi egin zuen orube horretan zegoen eraikina. Hirugarren eraikinak jabe pribatu bi ditu. Hirurek hodi forma dute, estuak dira. Eraikin zabal eta solairu bakarrekoak egitea da asmoa. Solairu bakoitzaren jabetza-erabilera aurreproiektuan finkatuko dute.

### Kostua eta finantziazioa

Proiektua elkarrekin gauzatzeak “kostuak gutxitzea” ere ekarriko du, alkatearen esanetan. Izan ere, bi miloi euro gaindituko dituen egitasmoa izan daiteke. Fundazioak jakinarazi die badutela kostuen erdia estaliko lukeen diru kantitate bat. Udalak legegintzaldi honetan aurreproiektua gauzatu, diru iturriak lotu eta dagozkion arau urbanistikoen moldaketak gauzatu gura ditu. Epe luzera begirako egitasmoa da. “Sei-zazpi urteko prozesua izan daitekeela kalkulatzen dugu”, dio alkateak.

# EH Bildu Lanbide Heziketa Institutuaren alde agertu da

Proiekturako “lanketa sakonago” bat eskatu dute

**DURANGALDEA** M.O.
EH Bilduko lau alkatek —Idoia Buruaga elorriarrak, David Cobos atxondarrak, Lorea Muñoz izurtzarrak eta Endika Jaio mañariarrak—, agerraldia egin zuten martitzenean Elorrion, Lanbide Heziketako Institutuko egoeraz berba egiteko. “Proiektuarekiko konpromisoa eta apustua berresten ditugu”, adierazi zuen Cobosek.

LOMCEren eraginez, lehen Amankomunazgoak kudeatzen zuen institutuaren ardura Durangoko Udalak hartzea erabaki zuten, duela urte eta erdi inguru. Ikastetxearen finantziaziorako, Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duten laguntzaz aparte, eskualdeko udalek kuota bat ordaintzea proposatu zuen Durangok. Baina EH Bilduk gestioa ere hitzartu gura du, “lanketa sakonago bat” behar duela dio Buruagak. Ekainean bidali zioten proposamena Durangoko Udalari, eta oraindik erantzunik ez dutela jaso esan dute.

## Hirigintza plana eraberrituko dute Garain, 2017an

**GARAI** M.O.
Eguaztenean egindako osoko bilkuran 2017ko udal aurrekontua onartu zuten ordezkari politikoek, eta aho batez gainera. 417.000 euroko aurrekontua izango da, eta inbertsioetarako 79.000 euro gorde dituzte. Horien artean, hirigintzako plan orokorra eraberritzea izango da apusturik esanguratsuenetakoa, 25.000 eurogaz. Beraz, Garain hirigintza ikuspegitik eman beharreko aldaketak jorratuko dituzte 2017an.

Bestalde, ur hornikuntzarako 48.000 euro erabiliko ditu udalak. Hain justu ere, San Migel kalean egingo dute obra, Kurutzondotik elizaraino. Kanposantuan ere obra bat egitea aurreikusi dute, eta 6.000 euro bideratuko dituzte.

## Oihana Kortazar korrikalariaren berbaldia

**MALLABIA** J.G.
Gabon egunetarako egitarau oparoa prestatu dute Mallabian. Bihar, 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingi plazan egongo dira, ume zein helduen gozamenerako. Bi pertsonaia hauei bideratutako gutunak liburutegian, eskolan eta udaletxeko buzoian jasoko dituzte. Abenduaren 26an eta 27an, berriz, haur parkea egokituko dute frontoian.

Era berean, gaurkotasuneko gaiei lotuta, bi berbaldi antolatuko dituzte. Batetik, *Errefuxiatuak, Europaren lotsa* berbaldia emango du Kainabera elkarteak abenduaren 27an. Bestalde, Oihana Kortazar mendi korrikalariak ere berbaldia emango du Kontzejuzarren, urtarrilaren 3an.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**PILAR RIOS**
PSE-EE



**Pobrezia energetikoa ez da esamesa bat, egia hutsa baizik**

Txikia nintzenean, Andersenen “Pospolo-saltzaile txikia” zen gogokoen nuen ipuinetako bat, eta, era berean, bera izan zen gehien hunkitu ninduen ipuinetako bat. Pobreziak eta hotzak jota hil zen neskato hura. Larritu egiten ninduen eta negar asko egiten nuen. Ez nuen ulertzen zer dela-eta igarotzen zen jendea haren aurretik, laguntzarik eman gabe.

Orain dela gutxi kontatzen ziguten —eta hau ez da esamesa— Durangon ama batek seme-alabekin batera egiten zuela lo, ohe berean, bero izateko, eta, horrela, lo egin eta atseden hartu ahal izateko. Ondo frogatuta dago emakumeak eta adin txikikoak direla pobreziaren biktima nagusiak.

Urteak eman ditugu biktima horiek babesteko gobernuari eskatzen, eta badirudi azkenean egin egingo duela, hornidura elektrikoa funtsezko zerbitzua dela joko baita.

Gaur egun, Euskadin, Eusko Jaurlaritzak 400.000 euroko aurrekontua du zailtasunak dituzten familiei laguntzeko. Gurutze Gorria arduratzen da hori kudeatzeaz, eta aurten, 1.341 familiari eman die laguntza.

Durangon, udalak, JAEDekin elkarlanean, batez beste 70 familiari ematen die arreta urtean, eta 24.000 euro bideratzen ditu horretarako. Gaur den egunean, Durangok JAED, Caritas eta Gurutze Gorriaren laguntzarekin egiten dio aurre pobrezia energetikoari. Esker oneko hitzak baino ez ditut boluntario horientzat.

Laguntza hori gabe, egoera ahulean dauden familiak biktima ikusezinak izango lirateke, pospolo-saltzaile txikia bezala, inork gutxik gogoratzen duen ipuin triste bateko pertsonaiak.

**IRITZIA**

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

**DURANGALDEA ASTEON**

## Jaki freskoak erosteko udalaren laguntza

**ABADIÑO >** Beharrizana duten familiei jaki freskoak eskuratzen laguntzeko, erosketa txartelak banatuko ditu Abadiñoko Udalak, hirugarren urtez. Udaleko gizarte zerbitzuek banatzen dituzten janari-poltsetan normalean sartzen ez diren hainbat jaki —okela, arraina edota fruta— erosi ahalko dira herriko hainbat dendatan bonu horiekin.

## Tonbola solidario arrakastatsua, bigarrenez

**ZALDIBAR >** Haurren minbiziaren ikerkuntzarako dirua biltzea helburu duen tonbola solidarioaren bigarren edizioa egin zuten abenduaren 17an, Zaldibarren. Batutako diru kopurua oraindik zehazterik ez duten arren, iazko markak hautsiko direla uste dute antolatzaileek. Tonbolako 826 artikuluak hiru orduan banatuta zeudela esan dute.

## Ibilgailu elektrikoa erosi du Durangoko Udalak

**DURANGO >** Lehenengo ibilgailu elektrikoa erosi du udalak. Argiteria publikoaren mantentze-lanak egiteko erabiliko da, eta 9.900 euroko kostua izan du. Udalaren ingurumen politikaren barruan kokatzen da erosketa, azaldu dutenez, eta “udalerriko airearen kalitatea hobetzeko hartutako konpromisoaren adibidea” dela gaineratu dute ohar baten bitartez.

## Berbaz

**Txaber Arruabarrena Carlos** (Elorrio, 1971) **eta Juanjo Legorburu Gerediaga** (Zornotza, 1959) | Preso ohiak

# "Apurka-apurka bada ere, euskal presoen gaia politikarien agendan ipini behar dugu"

'Kalera, kalera' dinamikaren barruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. Durangaldean ere bai.

> **BERBAZ** Aitziber Basauri

**Abenduaren 10ean abiatu zuten Usurbilen (Gipuzkoa) euskal preso ohi ugarik antolatutako 'Kalera, kalera' dinamika. Urtarrilaren 8ra arte iraungo duen Kaleragunea zabaldu dute, eta hainbat ekitaldi antolatuko dituzte han eta beste hainbat herritan. Durangaldean ere izango dira ekitaldiak. Presoen senideei herritarren babesa emateko ekitaldi berezia egingo dute Durangon.**



**Usurbilen abiatu da 'Kalera kalera!' dinamika. Nola sortutako mugimendua da?**
**Juanjo Legorburu:** Errepresaliatuen esparruan zenbait hutsune zeudela ikusita, preso ohi batzuk elkartu ginen orain urtebete inguru, eta kezka horren ondotik esparru komunikatibo bat sortu genuen. 2013an gogor kolpatu zuten euskal preso politikoen antolakuntza, eta baita horri laguntza ematen dion esparrua ere. 'Herrira' plataformaren aurkako operazioa, tartean. Etxerat ere audientzian aurkezteko hitzorduak jasotzen hasi zen iaz. Egoera horrek kezkatuta hasi ginen biltzen, eta lehenengo agerraldia apirilean egin genuen, Usurbilen. 700 bat preso ohik manifestua sinatu genuen, eta erabaki Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) hartutako erabaki oro kalean zabaltzeko asmoa eta gaitasuna izan behar genituela.

**'Kaleragunea' ere zabaldu da dinamika horren barruan.**
**Txaber Arruabarrena:** Bi esparru bereizi leudeke. Batetik, Usurbilen zabaldutako *Kaleragunea* legoke, gune zentral edo iraunkorra. Egunero 40-50 preso ohik parte hartuko dute bertan izango diren ekimenetan, eta interlokuzio dinamika bat zabalduko da hainbat eragilegaz. Bestetik, herrietan antolatutako dinamikak leudeke.

**Zein da helburua?**
**T. A.:** Batetik, kontzientziazio eta mobilizazio esparru bat sortzea da helburua, hutsune hori betetzeko, eta, bestetik, EPPKri babesa ematea eta bertotik sortutako erabaki eta ekimenak gizarteratzera; eztabaida ematen den bitartean, desitxuraketarik egon ez dadin babesa ematea.
**J.L.:** Apurka-apurka bada ere, euskal presoen gaia politikarien agendan ipini behar dugu. *Kaleragunea* oinarrizko kanpamentua da, baina ez da ohiko itxialdi bat. Parte-hartzaileak bertako dinamiketan ari dira, eta kalera ere irteten dira sindikatu, eragile politiko edo sozialekin egoteko.



Apirilean presoen kolektiboaren pausoak babestu zituzteneko talde argazkia.

**Talde bat eratuko da, preso ohiz osatua, eta eragile sozial eta politikoekin harremanetan jarriko da.**
**J.L.:** Eragile politiko, sozial zein sindikala izan, geure apaltasunean, esparru komunikatibo baterako konfiantza sortu gura da. Ondoren, bakoitzak bere funtzioa bete horretan, eta denon artean ea presoen gaia agendako lehenengo lerroan ipintzea lortzen dugun. Lehenengo hartu-eman bat da; gero ere mantentzea ondo legoke, hau ez da-eta bihar gertatuko.

**Presoen kaleratzea ere eskatu gura du dinamikak?**
**J.L:** Ziklo historiko baten leloa da 'Kalera, kalera', bakea eta askatasuna ere batzen dituena. Askatasunik gabe ez dago-eta bakerik.
**T.A.:** Kalean gura ditugu eta gu ere kalean egongo gara. Egoeraren hausnarketa egiterakoan Arkaitz Bellon elorriarraren kasua gogoratu behar dugu, adibidez. Guztiz desproportzionatua zen kartzela zigorra betetzeko hiru hilabete geratzen zitzaizkiola hil zen. Presoek bizi duten egoera gogoratu behar dugu. Hor ditugu, eskualdean gaixo dagoen Gorka Fraile edo Portugalen den Andoni Zengotitabengoa, isolatuta egondakoa. Ehunka kilometrotara dispertsatuta daude presoak: batzuk ezin dute bikotekidea ikusi, eta umeak ere badaude tarteko. Bost urte dira egoera aldatu zela, eta sufritutako konfrontazioaren ondorio garrantzitsuenetako bat dira presoak. Horri konponbidea eman ezean nekez esan genezake beste fase batean gaudela.

> "*Kontzientziazio eta mobilizazio esparru bat sortzea da helburuetako bat*"

**Durangaldean ere hainbat ekitaldi antolatu dituzue.**
**T.A.:** Bai, herri guztietan egongo dira ekitaldiak. Elorrion, adibidez, abenduaren 24an eta 31n egingo dira ekitaldiak; Zornotzan abenduaren 30ean. Urtarrilaren 8an, berriz, eskualdeko ekitaldi berezia egingo da, Durangoko Plateruena kafe antzokian. Senideei herritarren babesa emateko ekitaldia izango da. Euskal Herri edo lurralde mailako ekitaldiak ere egingo dira. Adibidez, urtarrilaren 6an, giza-katea egingo da Donostian.
**J.L.:** Ahalik eta toki gehienetara heldu gura da. Ekitaldi guztiak *www.kalerakalera.eus* atarian daude jasota.

**EPPKak jakinarazi du "hausnarketa prozesu garrantzitsu baten atarian" dagoela. Nola baloratzen duzue agiria?**
**J.L.:** Halako eztabaida bat aurrera eramateko zailtasunak handiak dira, baina, dioten lez, gardentasunagaz jokatuko dute. Izan daitezkeen manipulazioetatik gaindi egotea eskatzen dute, ea eztabaida ahalik eta emankorrena ahalbidetzen den.
**T.A:** EPPKri babesa ematea da gure lana. Hala ere, salbuespen legeak edo mendekotasun politika amaitu ezean ezinezkoa izango da inolako ibilbiderik egitea.

Kultura

# Malabareak, zuzeneko musika eta akrobaziak oholtzara, hiru egunez

Ganso&Cia taldeak eta San Agustinek antolatu dute abenduaren 28, 29 eta 30eko Durangoko jaialdia




Joan zen astean Durangoko Museoan egin zuten II. Maluta aurkezteko agerraldia.

**> ZIRKUA** Itsaso Esteban
Datorren eguaztenean, eguenean eta barikuan eskainiko dituzte *Maluta* eguberriko zirku garaikidearen emanaldiak, Durangoko San Agustin kulturgunean. Bigarren urtez antolatu dute jaialdi hori Ganso & Cia talde egoiliarrak eta Durangoko kulturguneak. Bertako zein nazioarteko zirku garaikideko puntako artistak jardungo dira "ikuskizun esklusibo" horretan. Adin guztietako publikoari zuzenduriko "ikuskizun globala" da *Maluta*, akrobaziak, malabareak, umorea, poesia eta zuzeneko musika osagai dituena.

Gorka *Ganso* da jaialdiaren zuzendari artistikoa, eta berak egingo du emanaldiaren aurkezpen "ez konbentzionala". *Ganso*k aurkeztuko ditu Durangoko eguberriko zirkuan parte hartuko duten artista gonbidatuak. Dúo Laos argentinarra, Extremadurako JC Margallo, Alacanteko Lucas Locus eta Valladolideko Ruben Martín etorriko dira, eta Izaskun Agirresarobe eta María Villate artista euskaldunek ere parte hartuko dute emanaldian.

Eguberriko zirkuaren hiru emanaldi egin zituzten iaz, eta bete egin zen San Agustin. Aurten ere hiru aukera izango dira ikuskizuna gozatzeko: abenduaren 28, 29 eta 30ean, 18:00etan.

Bigarren edizio honegaz, *Maluta* "tradizio bihurtzeko mehatxua" egin dute antolatzaileek.

Aurten, gainera, Basauriko Social Antzokian ere eskainiko dute ikuskizuna, lehenengoz.

---

**Maria Villate** (Bilbo, 1976) | 'Into the shadows' lana eskainiko du San Agustingo 'Maluta' jaialdian

## "Asko eskertzen dugu hiru egunez areto berean jardun ahal izatea"

Durangoko Eguberriko zirkuaren artista gonbidatuetako bat da Villate



**> ZIRKUA** Itsaso Esteban
**Gorputzen mugimendua eta itzalak oinarri dituen 'Into the shadows' pieza eskainiko du Maria Villatek Durangoko 'Maluta' jaialdian. "Oso berandu, 26 urtegaz, hasi nintzen zirkua egiten", kontatu du bilbotarrak. Bilbao 700 Fundazioan marketing arloan egiten zuen lana utzi, eta Bartzelonara jo zuen zirku teknikak ikasi eta arlo horretan lan egiteko aukeren bila. "Zirkuak bizitza osoa aldatu zidan", dio Villatek. Kataluniako hiriburuan bizi da egun.**

**Zergatik erabaki zenuen Bartzelonara joatea?**
Zirku arloan jardun gura nuen, eta 2002an aukera gutxi zegoen hemen. Koblakari elkartea existitzen zen, baina Bartzelonara etorri nintzen, zirku eskolan ikasi gura nuelako.

**Zer elkarte da Koblakari?**
Bizkaiko malabaristen elkartea da Koblakari. Gaztetxea bota zuten arte Kukutza Gaztetxean zeukan egoitza.

**Zirkuaren arloko zure lehen pausoak elkarte horri lotuta eman zenituen?**
Bai, Koblakari ezagutu nuenean hasi nintzen malabareak egiten, eta horrela joan nintzen zirkuaren munduan barneratzen. Hortik abiatuta hasi nintzen ezagutzen zirkuari loturiko bestelako teknikak ere. Hasieran denetarik probatu nuen eta espezializatzen joan naiz gero.

**Durangon aurkeztuko duzun 'Into the shadows' piezak dantzagaz lotura handia du.**
Bai, zirkuko teknikatik abiatuta sortu nuen, baina itzaletan eta gorputz mugimenduetan oinarritutako ikuskizuna da. Formek, dantzak, mugimenduek eta elementu plastikoek ere garrantzi handia dute ikuskizunean... Izan ere, oso gustuko dut teknika desberdinak uztartzea.

**Bost minutuko iraupena du 'Into the shadows'. Ohikoak dira horren iraupen laburreko piezak zirku garaikidean?**
Bai. Bost eta zortzi minutu arteko iraupena izaten dute normalean zirku ikuskizunek.

**Zelan hartu duzu 'Maluta' ikuskizunean parte hartzeko egin dizuten gonbidapena?**
Etxean lan egin ahal izateko aukera da niretzat, eta poz handiz hartu dut. Zoritxarrez, gutxitan izaten dut Euskal Herrian aritzeko aukera, eta ilusio handia egiten dit.

**Katalunian aukera gehiago dago zirkutik bizitzeko?**
Bai, Bartzelona hiri handigoa da eta, gainera, historia luzeagoa ere badu diziplina honek han. Krisi sasoian, edozelan ere, leku guztietan igarri da lan aukeren gutxitzea. Inon ez da erraza aurrera egitea: Bartzelonan artista asko gaude, eta aukera mugatuak.

**Ez da oso ohikoa zirkua kultur aretoetan ikustea.**
Horrelako aukera oso gutxi izaten dira oraindik ere. Oso zaila da zirku ikuskizunak areto barrurako programatzea. Izan ere, askok ez dute beste arte eszenikoen parean ikusten. Edozelan ere, gutxinaka bagoaz bidea egiten eta zirku garaikidea hedatzen.

**28an, 29an eta 30an, hiru egun jarraian, areto berean jardun ahal izatea ere aukera ederra da, ezta?**
Aukera ezin hobea da. Batetik bestera bizi gara, eta asko eskertzen dugu hiru egunez jarraian areto berean jardun ahal izatea. Neke fisikoa gutxitzen da, eta askoz gusturago egiten dugu lan.



# ‘Bainera bete itsaso’ album ilustratua aurkeztuko dute

## Arteka liburu-dendan sormen prozesua islatzen duen erakusketa jarri dute

> LITERATURA Aimar Esteban

Miren Amurizak idatzitako eta Irati Egurenek ilustratutako *Bainera bete itsaso* liburua aurkeztuko dute abenduaren 30ean, 19:00etan, Durangoko Arteka liburu-dendan. “Sorkuntza prozesua bertan hasi zen. Mirenek nire ilustrazio bat ikusi zuen, eta, horren ondorioz, kontaktuan jarri ginen”, azaldu du Irati Egurenek.

Aurkezpenean, sormen prozesua nolakoa izan den azaldu eta liburuari lotuta prestatu duten ikus-entzunezkoaren emanaldia egingo dute. Horrez gain, albumean agertzen diren ilustrazio originalak eta bideorako espresuki prestatutako testuak ikusgai daude liburu-dendan, abenduaren hasieratik.

Liburuak harrera onagaz hasi zuen ibilbidea Durangoko Azokan. “Oso pozik gaude izan duen harreragaz, eta liburu normal bat ez izatera, gabonetarako opari berezia izan daitekeela uste dut”, dio Egurenek.

Amurizak eta Egurenek etorkizunean ere elkarregaz lanean jarraitzeko gogoa daukate. “Ideiak buruan baditugu izan, baina forma konkreturik gabe”.

Mursegok lanaren bideoari musika jarri dio. “Liburuaz gain, beste formaturen bat ere egitea gura genuen, eta transmititu gura genituen sentsazioak Mursegok soinuetan islatu ahal zituela iruditu zitzaigun”.



Harrera ona izan zuen ‘Bainera bete itsaso’ albumak Durangoko Azokan.



Urtarrilaren amaierara arte egongo da erakusketa ikusgai Arteka liburu-dendan.

# Urte amaierarako, bi erakusketa aukeran

## Elorrion eta Durangon daude arte erakusketak



Urtarrilaren 8ra arte dago Etxebertzen lana Durangon ikusgai.

> ARTEA Itsaso Esteban

Euskal artisten lana biltzen duen erakusketa bana dago, urte amaiera honetan, Durangon eta Elorrion ikusgai. Durangoko Museoan Christine Etxebertz (1953, Baiona) artistaren margolanen bilduma bat dago ikusgai, urtarrilaren 8ra arte.

Aurtengo Durangoko Azokaren karteleko irudiaren egilea da Etxebertz. Hain zuzen ere, Azokako kartela egin duen Iparraldeko lehenengo artista izan da arte ikasketak Bordelen eta Pauen egin zituen margolari baionarra. 51. Azokaren kartelean bezala, abstrakzioa eta kolore biziak dira Durangoko Museoan azarotik ikusgai dauden koadroen ezaugarriak ere.

Artista gazteen lana da abenduaren 29ra arte Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai egongo den erakusketaren ardatza. Bizkaiko Aldundiak antolatzen duen Ertibil erakusketa kolektiboaren XXXIV. edizioak Elorrion amaituko du maiatzean Bilbon hasi zuen bidea. Hirugarren urtez gozatu ahalko dute elorriarrek Bizkaiko artista gazteen lana herriko kultur etxean.

Aurtengo Ertibil arte lehiaketako lehenengo hiru lan saridunak ezezik —lehenengoa Amaia Garciarena, bigarrena Irantzu Yaldebererena eta hirugarrena Helena Goñirena—, beste 17 artista bizkaitarren lanak ere aukeratu dituzte erakusketa ibiltariaren bilduma osatzeko. Tartean daude Durangaldeko Iñigo Garaturen (Iurreta, 1990) *Ateak zabalik?* izeneko eskultura lana eta Damaris Panek (Mallabia, 1983) olioagaz margotutiko koadro bat ere.

## GEURE DURANGALDEA

GARAZI ARRIZABALAGA
Durangoko Museoa



### Museoa bizi

“Artearen Historia ikasiko duzu? Eta horrek zertarako balio du?”, “Hori ikasita ez duzu lanik aurkituko”…

Horrelako hamaika esaldi eta iritzi entzun behar izan nituen orain dela 14 urte. Baina hori zen nire pasioa, barnetik sentitzen nuena Artea ezagutzea zen. Karrera emaitza onekin amaitu, Italian ikasi eta lan egin, masterrak, kurtsoak, hainbat urtez gora eta behera ibili eta gero azkenean lortu dut benetan desiratzen nuena. Artearen Historia ikasteagatik nire ametsetako lana daukat eta nire gogo eta indar guztiekin dena emango dut nire lana ahalik eta ondoen egiteko.

Durangoko Arte eta Historia Museoko eta Kurutzesantu Museoko arduraduna naiz orain. Batzuetan hori esanda zorabiatu ere egiten naiz, baina hau da errealitatea. Proiektu handi bat daukat esku artean.

Eta hemendik hauxe esan nahiko nieke irakurle guztiei: museoak ez dira leku itxiak, pertsona gutxi batzuentzako lekuak. Ez, museo bat bizitzeko toki bat da, ikasteko, disfrutatzeko, gure Historia, gure errealitatea ezagutzeko toki bat. Kendu beldurrak eta etorri Museora. Museoaren ateak zabalik dituzue eta zuen ahotsak, zuen takoien zaratak eta zuen umeen oihuak entzun nahi ditugu. Ideiak elkar banatzeko tokia da, zuen etxea da.

Aurreko astean zutabe honetan Jon Irazabalek esaten zuen moduan, gurea dena ezagutu behar dugu. Denon artean egin dezakegu Museoa. Kendu lotsak eta beldurrak eta Museoa bizi ezazue. Zuena da, beste inorena ez.

Museoan elkar ikusiko dugu!







ALKIMAX
Alquilamos soluciones
Zorionak eta urte berri on!
BEROKUNTZA
Heldu da euriaren eta hotzaren garaia...
INFRAGORRIAK
AIRE KANOIAK
ERRADIADOREAK
HEZETASUN-KENGAILUAK
FAROLAK
JASOGAILUAK
Beso artikulatuak
Artaziak
BONBAK
Bonba urpekariak
Motobonbak
Eitua industriagunea, 71C · BERRIZ · 946 824 550
Goiko Ibarra, 26 (Eroski ondoan) GERNIKA · 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net
SGS
SGS
SGS

# Musikazaleen bultzadari esker kaleratuko dute lehen diskoa

'Crowdfunding' kanpaina ipini dute martxan Bultz! talde berriko kideek

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Finantzaketa kolektiboaren bitartez kaleratuko du Bultz! musika talde sortu berriak bere lehenengo diskoa. Urtarrilaren 11ra arte izango da Interneteko Verkami plataformaren bitartez laukoteari bere lehenengo proiektua gauzatzen laguntzeko aukera. Asteon, finantziazio kanpainan helburutzat ipini duten 5.000 euroko kopurua ia lortua zuten: martitzenean, 4.475 euroko laguntza eskuratua zuten jendearen ekarpenetatik.



Aurretik Iheskide, Pixontxis edota Kruders taldeetan ibilitako musikariak elkartu dira Bultz! talde berrian.

Aurretik Iheskide, Pixontxis edota Kruders taldeetan ibilitakoak dira Bultz! taldea eratu duten lau musikariak. "Urteetako esperientzia dugun gazteak gara, egunez egun gure musika aurrera eramaten aritu garenak", diote taldekideek komunikabideetara bidali duten oharrean.

"Esfortzua eta ilusioa izan ditugu beti bidelagun, baina oraingoan hutsetik hasiko gara, eta horrelakoetan ezinbestekoa da jendearen laguntza", diote Bultz! taldeko musikariek.

Musikazaleen ekarpenetatik bildutako dirua lehenengo diskoaren grabaziora, nahasketak egitera, masterizaziora eta paketatzera bideratuko du Bultz! taldeak. "Inguruko gaiei buruzko euskarazko 11 kanta bilduko ditugu diskoan, soinu melodiko eta indartsuak nahastuz", aurreratu dute musikariek.

2016. urte amaieran eta 2017 hasieran, Usurbilgo HiGain estudioetan burutuko dute grabazioa, eta diskoaren aurkezpen kontzertua 40 Minutu Rock jaialdian egitea aurreikusten dute, otsailean.

## Umeen ipuin lehiaketa ipini dute martxan

**> LITERATURA** Aimar Esteban

Literatura sorkuntza bultzatu nahian, Lehen Hezkuntzako gazteei zuzendutako ipuin lehiaketa jarri du martxan Barrizten Kultur Elkarteak. Urtarrilaren 3tik 13ra arte izango dute lanak aurkezteko epea.

Lehenengoz egingo dute lehiaketa hori, eta *Abenduko ipuinak* izango da gaia. Gai horri loturiko idazlanak aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek. Bi kategoria izango dira: Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailakoak, batetik; eta bosgarren eta seigarren mailakoak, bestetik.

**Sariak, otsailaren 2an**

Zelaietako Mediatekan eta Traña-Matienako Errota Kultur Etxean jarriko dituzten postontzietan jasoko dituzte idazlanak, eta otsailaren 2an egingo dute sari banaketa. Sari nagusia Abadiñoko edozein liburu-dendatan liburuak erosteko baliatu ahalko den 60 euroko bonua izango da.

# Bilbao Arena bete bertsozale, eta Etxahun Lekue txapeldun

Bizkaiko txapela jantzi zuen, zapatuan, Lekuek

**> BERTSOLARITZA** I. Esteban

Bilbao Arenan 4.150 bertsozaleren aurrean jardun ziren Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera ailegatzea lortu zuten zortzi bertsolariak, abenduaren 17an. Etxahun Lekuek jantzi zuen txapela, Xabier Amurizaren eskutik, eta hari eskaini zion Amurizak bere bertso erretzitatua: "Ez ibili beti txapela buruan, baina ibili beti txapeldun moduan", esan zion Amurizak irabazleari.

Xabat Galletebeitia lekeitiarragaz jokatu zuen buruz-burukoa Lekuek, eta egin zituzten hiru ariketetan —zortziko txikian, seiko motzean eta kartzelakoan— Galletebeitiak baino puntu gehiago bildu zituen.

Honakoa izan zen finaleko sailkapena: Lekue eta Galletebeitiaren ostean sailkatu ziren Jone Uria, Onintza Enbeita, Ibon Ajuriagojeaskoa, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea. Puntu gutxiko aldea izan zen sailkapenaren goiko postuetan, eta Jone Uria algortarra buruz burukoaren atari-atarian geldituzen.

Amuriza berriztarra eta Ugartetxea mallabitarra izan ziren finalean parte hartu zuten Durangaldeko ordezkariak, eta 531,5 eta 510,5 puntu bildu zituzten, hurrenez hurren.

Bakarkoan saioko onenetakoa izan zen Ugartetxea —Enbeitak bakarrik bildu zituen berak baino puntu gehiago ariketa horretan—, eta, aldiz, Zortziko Nagusian galdu zuen gehien. Amuriza oso orekatu ibili zen orokorrean, baina bakarkakoan laprast egin zuen.

Bertsotan aritutako Amuriza eta Ugartetxea, eta txapel-jartzaile izan zen Xabier Amuriza ezezik, Durangaldeko lagun gehiago ere egon ziren finalean, oholtzan zein bestelako lanetan: Maite Berriozabal eta Amaia Ugalde gai jartzen eta aurkezten ibili ziren, eta epaile eta idazkari lanetan jardun ziren Miriam eta Itxaro Juaristi.



Etxahun Lekue larrabetzuarra Xabat Galletebeitiari gailendu zitzaion finaleko buruz-buruzkoan.



4.150 bertsozaleren aurrean kantatu zuten Bizkaiko Bertsolari Txapelketako zortzi finalistek.

Kirola

# Xakearen eskualdeko erreferente dela heldu da Abadiñoko taldea 25. urteurrenera

Euskal Ligako Ohorezko Mailan ordezkaritza duten Durangaldeko talde bakarra dira gaur egun



Aurtengo denboraldi hasieran ateratako familia argazkia.



Otsailean 400 gazte batu zituzten Abadiñoko probalekuan antolatutako xake txapelketan.

> XAKEA J.Derteano

1991. urtean abadiñar batzuek herrian xake talde bat sortu gura zutela adierazi zioten Bizkaiko federazioari eta honek, orduko irizpideei jarraituz, ideia hori albo batera uzteko gomendatu zien. Herri txikiegia ei ziren eta hazia ez omen zen erneko. Hobe zutela gaztetxoak ondoko herri handiago batera bideratu esan zieten. Baina bederatzi abadiñarrek beren asmoan setati jarraitu eta Abadiño Xake Taldea sortu zuten. Orain, 25 urte geroago, Durangaldeko erreferente dira, Euskal Ligako Ohorezko Mailan taldea duten bakarrak dira eta xake eskolan 50 bat gaztetxo dabiltza. "Momentu onean gaude. Gaitza da gaur egun gauden tokitik gora egitea", dio Alberto Delgado taldeko presidenteak.

Bertatik bertara bizi eta ikusten zuten arazo bati irtenbidea emateko sortu zuten xake taldea. 1991.urtean xake eskolak hainbat urte zeramatzan martxan. Harrobi dotorea zegoen, baina iraungitze data zuen. Harrobitik federaturako saltoa ematerako ordua heltzen zenean gaztetxorik gehienek xakea uzten zuten. "Ez zuten Durangora joan gura. Hori hainbat belaunaldiri gertatu zitzaion. Horregatik sortu genuen taldea", gogoratu du Delgadok. Xake talde bat zuen eskualdeko hirugarren herria bihurtu zen, Durango eta Zornotzagaz batera.

Harrezkero, talde berriak sortzen eta igoerak lortzen joan dira. Ibon Martinen gidaritzagaz eta Ieray Galtzagorri zein Alain Prieto xakelariekin, besteak beste, talde nagusiaren loraldia heldu zen eta Euskadiko mailarik gorenean kokatu ziren. "Kategoria denetan eta, bakarka zein taldeka, txapeldunak izan ditugu, gizonetan zein emakumeetan", dio Delgadok. Maitane Varas da nesketan duten promesetako bat.

### Leontxo Garciaren hitzaldia

Aurten lehia eta ospakizunak tartekatu dituzte. Horri guztiari Leontxo Garciaren hitzaldia gehiatu behar zaio. Xakean espezializatutako kazetari, hizlari eta telebista aurkezle iruindarra goren mailakoa da mundu horretan, eta joan zen asteburuan Errota kultur etxera egindako bisita taldearen historiarako geratu da. Zelaietan 400 gazte batu zituen txapelketa eta euren ibilbidean irabazitako garaikurrekin osatutako erakusketa dira urteurrenaren harira antolatukako beste ekintza batzuk.

## *"Xakean jokatuz gozatzen duen afizionatu bat naiz"*

Sortu zenetik, Abadiño Xake Taldeko presidentea da Alberto Delgado.



**Abadiñoko Xake Taldearen ibilbidea ezin daiteke ulertu Alberto Delgado (Abadiño, 1969) barik. Bederatzi lagunen lanari esker, taldea sortu zenetik presidente jardun du.**

**Hasierako urteak gaitzak izan ziren, baina gaur egun gozatzen ari da taldearen lorpenak ikusita. Hala ere, mende laurdena hor emanda, gustura hartuko luke erreleboa.**

**25 urte daramatzazu presidente. Partida hau amaitzear dago ala taulan indartsu ikusten duzu zure burua oraindik?**

Nik gauzak egiteko gogoz jarraitzen dut. Hainbeste urteren ostean, falta zaidana ideiak dira. Ideia berriekin datorren jendeak ni ordezkatzea gustatuko litzaidake, eta nik ondotik jarraitzea, gaur egungo erantzukizunik barik.

**Zer ote du xakeak mila eta bostehun urtean bizirik iraun ahal izateko?**

Leontxok [Garciak] hainbat erantzun eman zizkion galdera horri Errotan eskaini zuen hitzaldian. Pentsatzera behartzen gaitu, dibertigarria da, heziketarako balio du… Alderdi askotan laguntzen du.

**Zu umetan harrapatu zintuen xakeak?**

12 urtegaz hasi nintzen xake eskolan. Gustatu egin zitzaidan eta eskolako txapeldun geratu nintzen. Ondoren, Durangoko talde batean aritu nintzen harik eta Abadiñora itzuli arte. Edozelan ere, xakean jokatzeari baino denbora gehiago eskaini izan diot antolaketa lanari. Ez naiz xakelari bikaina, eta ez dut beste batzuek bezain sakon aztertu xakea, baina xakea modu askotara gozatu daiteke. Leontxok hinduen erlijioko esaera zahar bat gogoratu zuen: 'Xakea itsaso itzel bat da, zeinetan eltxoak edan dezakeen edo elefante bat bainatu daitekeen'. Ni eltxoa nintzateke, xakean jokatuz gozatzen duen afizionatu bat. Elefanteak maisu handiak lirateke.

**Xakean ikasitakoak balio izan dizu ohiko bizimoduan?**

Bai. Kontzentratzeko ahalmena, etorri daitezkeen egoera posibleei aurrea hartzeko gaitasuna… Urte asko daramatzat gauzak antolatzen hainbat arlotan, eta xakeak hori hobeto egiten lagundu dit.

**Hamaika eztabaida eta hausnarketa eragin duen galdera: xakea kirola da?**

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) kirol moduan hartzen du. Leontxok azaldu zuen bera behin NOBera joan zela eta kirola zer zen eta zer ez definitu ziezaiotela eskatu zuela. Azaldu zuenez, NOBen ez dago inon zehaztuta zer den kirola eta zer ez. Xakeak kirolaren antzerako egitura du, federazio, talde, liga eta abarrekin. Askotan ahazten zaigu xakean gorputzeko muskulu bat lantzen dela: burmuina. Orain kirol bat da, atletismoaren eta futbolaren ostean estaturik gehienetan dagoena. Baina kontua ez da inor konbentzitzea. Gozatu dezagun xakeagaz.

# Mikel Gonzalezek buruz buruzko txapelduna du zain Donibane Garaziko trinketean

Superprestige txapelketako finalerdia jokatuko du datorren astelehenean Peio Larralderen kontra



Mikel Gonzalez Bixintxo Bilbaoren kontrako partiduan.

> **TRINKETEA** J.D.

Superprestige txapelketa trinketean dagoen hitzordurik inportanteenetakoa da. Denen nahia da bertan parte hartzea, baina urtero hamabik bakarrik izaten dute horretarako aukera. Aurten Mikel Gonzalez (Berriz, 1984) izan da gonbidapena jaso duenetako bat, eta bikain erantzuten dabil. Lau kanporaketa gaindituta, finalerdietan Peio Larralde du zain, gaur egungo buruz buruzko txapelduna.

Astelehenean Bixintxo Bilbaori irabazita —orain arteko partidurik gogorrena— lortu du sailkapena. Larralderen kontrako finalerdia beste kontu bat izango da. Badaki "oso gaitza" dela gaur egungo "aurrelaririk onenari" irabaztea, baina erronkari aurre egiteko prest dago. "Zergatik ez? Zergatik ez dut irabaziko? Horixe pentsatuta irabaztera noa. Nire lana ondo egin gura dut, horretarako prestatzen nabil eta", esan du Gonzalezek.

### Sei hilabete geldi

Ipar Euskal Herrian bere bidea egin duen pilotaria da Gonzalez. Hainbat partidu jokatu ditu, gehienbat bigarren mailakoak. "Hasieran eskaintzen zidaten dena onartzen nuen, han jokatu gura nuelako". Etapa hartan "oso erantzun ona" eman zuela uste du, eta bazuela maila gorago aritzeko. Beraz, "eskaintza batzuk baztertzen hasi nintzen, eta partidu onak bakarrik jokatzea erabaki nuen", dio pilotari berriztarrak.

Sei hilabete Ipar Euskal Herrian partidurik jokatu barik eman ditu. Gogor entrenatzen jarraitu du, aukera baten zain. Horrela, Superprestigean aritzeko gonbidapena "sorpresa handia" izan dela onartu du. Orain bera da sorpresa ematen ari dena.

## ADITUAREN TXOKOA

**KEPA ARROITAJAUREGI**
Pilota teknikaria



### Apustuan segi

Trinketeak gorakada nabarmena izan du Bizkaian azken aspaldian, batez ere eskuzko arloan. Baliabideak eta instalakuntzak urriak dira, baina, benetako apustua eginda, pilotari zenbait badira maila bikainean aritu daitezkeenak.

Guztien artetik, bat nabarmendu behar, Mikel Gonzalez. Berriztarrak Iparraldeko jokalaririk onenekin batera aritzeko gaitasuna du eta hala dabil erakusten Donibane Garazin jokatzen den lehiaketa nabarmenean, 'Superprestige'n. Lau kanporaketa pasatu ditu jada eta Peio Larralde gaur egungo txapeldunaren aurka jokatuko du finalerdia. Larralde faborito da, nola ez, baina berriztarrak ziur bere aukerak izango dituela.

Eta hori, zergatik? Berriztarrak apustu bat egin zuelako orain urte batzuk, trinketerako apustua. Asegarcek debutatzeko aukerarik ez ziola eman ikusita (entrenatzen hainbat hilabete pasatu zituen), lau hormatan zentratu zen.

Bere ibilbidea bikaina izan da hegoaldean. Partidu gutxi, baina joko eta titulu asko soinean. Guztiak, Iparraldeko atea irekitzea lortu duen hegoaldeko pilotari bakarra izatea ahalbidetu dio Mikeli. Oraindik 'arrotz' sentiarazten dute bertako agintariek, zeinek ez dioten lehia garrantzitsuenetan aritzeko aukerarik eman oraindik. Superprestige-n eginiko lanak saria beharko luke, ea datorkion.

Ziur orain artean bezala lanean jarraituko duela, lanean fin bere aukeren zain. Aukerak etorriko zaizkio, kirolaren beraren onerako izango baita gainera. Aupa zu, Mikel!

# Gabon eguna korrika ospatzeko deia Elorrion

Santxibiri herri lasterketa egingo dute zapatuan

> **KORRIKA** J.D.

Zapatu honetan, Gabon egunean, Elorrioko Santxibiri lasterketa herrikoiaren bosgarren aldia egingo dute. 12:00etan gaztetxoen lasterketekin hasiko dira, eta 12:30ean ekingo diote nagusien probari. Herrian zehar antolatutako zirkuituari itzuli bi emango dizkiote, 5,5 kilometroko ibilbidea osatzeko.

Elorriokoa ez da urtea amaitu aurretiko lasterketa bakarra izango. Durangon San Silbestre proba egingo dute abenduaren 31n, Gabon zahar egunean. 17:00etan gaztetxoen lasterketak hasiko dira, eta 17:30ean nagusien txanda izango da.

### Belatxikietara igoera

Extrem Zornotza taldeak Belatxikietarako igoera antolatu du zapatu honetan. 09:30ean oinezkoak irtengo dira Zelaieta parketik. 10:15ean traileko parte-hartzaileak hasiko dira, eta 10:30ean BTTkoak.

Abenduaren 31n Belatxikietarako irteera antolatu du Zornotza Mendi Taldeak. 09:00etan Zelaieta parketik irtengo dira.

# Ezkurdi-Athletic partiduan jostailuak jasoko dituzte

Caritasi emango diote batzen duten guztia

> **FUTBOLA** J.D.

Ezkurdi Kirol Taldeak Gabonetako II. Ongintzazko Txapelketa antolatuko du zapatu honetan. 10:00etatik aurrera futbol partidu bi ikusteko aukera egongo da. Lehenengo, emakumezkoen konbinatu batek gizonezkoen konbinatu baten aurka jokatuko du Tabira futbol-zelaian. Ondoren, 12:00etan, emakumeen Ezkurdi taldeak Athleticen bigarren taldearen kontra neurtuko ditu indarrak.

Partidu horiek ikusteko sarrera ez dute dirutan kobratuko. Horren ordez, jostailuak batuko dituzte. Jostailu bat ematea izango da partiduak ikusi ahal izateko baldintza.

Goizean zehar hainbat zozketa egingo dituzte: Athleticeko jokalariek sinatutako kamiseta eta baloia, eta Ezkurdiren bufanda, besteak beste. Sari horiek eskuratu ahal izateko, errifa euro batekoa izango da.

Aurten ongintzazko txapelketa egiten duten bigarren aldia da. Iaz Ezkurdi eta Eibarko lehenengo taldearen arteko partidua antolatu zuten.






# IRAKURKETA ETA BURU - GARAPENA



Literatura hizkuntzak idazkeraren garrantzia areagotu besterik ez du egiten. Idazkerari, bestalde, ahozkotasunari baino garrantzi gehiago ematen zaio horretara behar ez lukeenean, gizakiak idazten baino hitz egiten lehenago ikasten baitu. Literatura hizkuntzak, bestalde, hiztegiak, gramatikak eta arauak ditu. Hori guztia, gainera, eskoletan erabiltzen diren liburuetan eta liburu bitartez irakasten da.

Hizkuntza, beraz, kode batek araututa gelditzen da eta kode hori berori ere arau idatzia dugu, erabilera zorrotz bati, ortografiari alegia, atxikita dagoena. Idazkerak duen garrantzi nagusia, beraz, horretan datza. Gorago esandakoaren haritik, egia esan, ahaztu egiten zaigu ezer idazten hasteko gaitasunaz jabetu baino askoz lehenago hitz egiten ikasten dugula, eta hori da prozesu naturala. Errealitate hori ahanztea prozesu naturala azpikoz gainera jartzea da eta hori da, hainbat alditan PRAKAGORRIn, gure ohiko jardunean, ikusi eta ikusten duguna: ikastetxeetan garrantzi askoz gehiago ematen zaiola idatziari ahozkotasunari baino.

Idatzira etorrita, ezinbestean aipatu beharra dugu irakurketa, idatzitako edozein testuren helburu nagusia irakurria izatea baita. Beraz, "baliabide" desberdin bi irakasten dira, ahozkotasuna lantzen hasi eta trebetasun hori garatzeari aurrea hartuz: idatzizkoaren irakurketa eta irakurritakoaren ulermena. Irakurleok bi modutara irakurtzen dugu: alde batetik, hitzak ezezagun zaizkigunean edota lehen aldiz ikusten ditugunean, gaztetan ikasitako irakurketa sistema klasikoaren arabera irakurtzen dugu, hau da, letraz letra.

Bestalde, ohiko edota ezagunak, sarritan irakurritakoak izanagatik, ditugun hitzak, aldiz, gainbegirada batez atzematen ditugu, hitzok osatzen dituzten silaba edota letretan hainbeste erreparatu gabe. Hitz horien morfologiak, beraz, balio ideografikoa hartzen du. Adierazitako eran irakurri arren, irakurlerik gehienen irakurgaitasuna oso motela da eta are kezkagarriagoa dena, ulermen urrikoa.

Beraz, irakurtzen gizaki orok daki baina ondo irakurtzen jakitea oso gutxiren esku dago, horretarako ulermen jasoko irakurketa azkarrerako metodologiak ikasi, barneratu eta buru-trebakuntza sakon eta etengabea izan behar baita. Baina, gaurkoan ez diogu gai horri helduko, liburu onak irakurtzetik jaso ditzakegun onurez baizik. Sarri darabilgun "baliabidea" hitza bi eratara interpretatu dezakegu.

Alde batetik, irakurketa-arau edo irakurle bikaina izatera garamatzan metodologia (ulermen jasoko irakurketa azkarraz jabetzeko metodologia) bezala uler dezakegu.

Bestetik, irakurtzen diren gauza edota irakurgai bezala interpretatu daiteke. Metodologia jakin baten jabe izan eta non aplikatu eduki ez izatea, irakurgaiak eduki eta irakurtzeko metodologiarik ez izatea bezain antzu eta burugabea da. Irakurleak ez du bere irakurketa hobetzeko metodologia bat eta bakarra baizik: liburuak.

Baina liburu guztiak ez dira irakurlearen irakurgaitasuna hobetzeko baliagarri eta, ondorioz, irakurle hobea izateko helburuz irakurtzen baldin badugu, ezin irakur daiteke edozein liburu edota iritzi-idatzi. Irakurleak ez du bere irakurketa inoiz hobetuko baldin eta irakurtzen dituen idatzi edota liburuak bere gaitasunak dituen mugen artean kokatutako liburuak bakarrik irakurtzen baldin baditu.

Irakurgaitasuna errotik hobetzeko irakurlearen gaitasunaz gainetik dauden liburuak irakurri behar dira, bere gaitasun mailatik haratagoko liburu edo idazlanak irakurtzea da bide bakarra, burmuina horretara besterik ez baita hobetzen. Ikasteko era bakarra.

Ondorioz, bikain irakurtzen jakiteak bakarrik ezeze, norbere irakurketa-trebetasunen hobekuntzak eskatzen dituen eskakizunak ezartzen dituzten liburuak identifikatzeak ere ikaragarrizko garrantzia du. Aisialdi-ordu batzuk igarotzeko jostaketa atsegina izan daiteke liburu entretenigarriren bat hartu era irakurtzea baina irakurketa horrek ez digu inondik inora irakurgaitasunean hobekuntzarik txikiena ere ekarriko.

Gauza bera esan daiteke irakurlearentzako ezezagunak diren ekintza batzuen inguruko informazioa jakinarazten dizkiguten idatziez, baldin eta ekintza horiekiko ulermena areagotzen urgazten ez badute. Informazioa jasotzeko irakurtzeak ez du burmuina jostatzeko irakurtzen dugunean baino gehiago hobetu eta zabaltzen.

Aipatutako kasuan, informazioa jaso duen irakurlearen burua irakurketari ekin ondoren, irakurtzen hasi aurretik baino ekintza ugariagoz hornituta dago baina, hala eta guztiz ere, hasieran zegoen toki berean aurkitzen da, ekintzekiko aldaketa kuantitatiboa lortu duen arren, bere irakurketa-trebetasunetan ez baitu inolako hobekuntzarik izan.

Irakurle bikaina bere buruarekiko oso zorrotza da. Irakurle bikainak era aktiboan irakurtzen du, ahalegina eginez eta, ondorioz, irakurketa analitikoa garatu nahiko dituen idatziak ere irakurleari eskakizun maila jasoak ekarri behar dizkio, horrela besterik ez baita irakurketa-trebetasunetan hobera egiterik izaten. Idatziak irakurlearen gaitasunaz haratago dagoenaren susmoa eman behar du.

Bestalde, irakurle bikaina izan arren, badira liburu jakin batzuk, burmuina etengabe hobetzea dakartenek eta horiek dira, hain zuzen ere, gure irakurketa-trebetasunak hobetzeko baliabide zuzen, bikain eta egokiak.

Zientzia alorreko liburu esanguratsuak sarritan zientzia mailakoak ez diren liburuak baino askoz irakurterrazagoak izaten dira. Baieztapen horren zergatia zientzia liburuetan egileek adigaiak zein beste proposamen nagusi edota funtsezko argudioak zehaztu eta azaltzean ahalegin berariazkoa egiten dutela ikustean datza, olerkigintzan adibidez, gaitasun eta eskakizun maila askoz jasoagoak hainbatetan eskatzen dituelarik, gertatzen ez dena.

Liburu bikain batek irakurtzeko ahalegina dagianari bi eratakoa izan litekeen ordainsaria eskaini diezaioke: alde batetik, idazlan bikain eta zaila ulertzea lortzen denean irakurketa-gaitasunaren hobekuntza gertatzen da. Bestetik, luzarora askoz garrantzitsuagoa dena, munduaz eta norberari buruz ere irakurleari irakasbiderik eman diezaioke.

Hobeto irakurtzea baino zerbait gehiago ere ikas dezake irakurleak, bizitzaz ere gauza asko gehiago ikas baitezake eta, ondorioz, jakintza aberastasunez hornitzea ekar baitiezaioke. Irakurketak ez du ezagutza maila ugaritu bakarrik egiten. Irakurketaren bitartez jakintza maila handiagoa eskuratzen da. Baieztapen horrekin giza bizitzaren egia nagusien kontzientzia maila sakonagoa lortzeko irakurketa baliabidea eta lagungarri bikaina dela adierazi nahi dut.

Burmuinaren garapen eta hazkuntzarako ez dago inolako mugarik, ez baitio hazteari inoiz uzten. Zahartzaroan besterik ez du burmuinak bere trebetasun eta ulermenerako gaitasuna gehitzen joateko ahalmena galtzen, baina une horretara iritsi aurretik ere burmuina, giharra den heinean, beste batzuk bezala, erabili ezean atrofiatu egin daiteke. Burmuinaren atrofia buru-ariketak egin ez izanak eragindako ordaina dugu.

Gure baitan baliabide egoki eta eraginkorrak izan behar ditugu gure burmuinak etengabeko lana egin dezan eta egunetik egunera bereak dituen trebetasun, eginbehar, betekizun eta gaitasunak ugaritu eta hasiz joan daitezen. Barne baliabiderik ez baldin badugu, maila intelektualean, moralean eta arlo espiritualean ere hasteari uzten diogu eta hori gertatzen denean, gainbehera prozesua hasia da.

Beraz, behar bezala irakurtzea, bikaintasunez irakurtzea, goi mailako irakurketa teknikenjabe izatea, ulermen jasoko irakurketa azkarrez irakurtzeko gaitasunaz jabetzeak era aktiboan irakurtzea dakar eta horrela irakurtzea bere horretan onuragarria izateaz gain, bakoitzak bere lanean edo ikasketetan aurrerabide sendorik izateko ere baliagarri da baina, guztien gainetik, irakurketa burmuina zeharo bizirik eta etengabeko hazkuntzan mantentzeko baliabide ezin hobea da. Beraz, errukirik gabe…irakurri dezagun !!!

**Gorka Aurre**
prakagorri@prakagorri.eus



# Berrizko ziklo-krosak Euskadiko txapeldunak erabakiko ditu bihar

Parte-hartzaileen kopuruak zein mailak gora egin dutela nabarmendu dute



Maila denak kontuan hartuta, 300 bat parte-hartzaile batzea itxaroten dute antolatzaileek. Maialen Zuazubiskar

> **ZIKLO-KROSA** J. Derteano

Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusiak jauzi bat emango du zapatuko zazpigarren aldian. Azken edizioetan Bizkaiko txapelketa hartu ostean, aurten Euskadikoa egongo da jokoan. Horrek parte-hartzaile kopuruan zein euren kalitatean "gorakada" bat eragingo du, Roberto Gomez Berriz Bizikletari elkarteko kideak proba aurkezteko prentsaurrekoan adierazi zuenez.

Guztira, 300 bat ziklo-kroslari batzea itxaroten dute Berriz Bizikletari Elkartearen, Berrizko Udalaren eta Bizkaiko federazioaren elkarlanari esker antolatuko proban. Elite mailan Javier Ruiz da Larrinaga izango da hutsune bakarra. Ez du iazko garaipena defendatuko, beste proba batera doalako. Horiek horrela, gizonetan Aitor Hernández da proba irabazteko faborito nagusia, Iñigo Gomez eta Joseba Leonen aurretik. Emakumeetan Eider Merino, Olatz Odriozola eta Zaloa Trevillaren artean egon daiteke txapela. Gizonen 23 urtez azpikoan Jon Munitxa abadiñarra da faborito, eta emakumeetan Lierni Lekuona. Ziklo-krosean Bizkaia errefente dela adierazi du federazioko presidente Agus Ruizek. "Ez nintzateke harrituko maila denetako garaileen erdiak bizkaitarrak balira", gehitu du.

Zirkuitua Berrizburun dago, eta hantxe hasi eta amaituko dira lasterketak. 2,5 kilometrotan zehar "jaitsiera teknikoei eta igoera gogorrei" aurre egin beharko diete ziklistek, Roberto Gomezen arabera. Zati bat Iñaki Lejarreta ibilbidean zehar izango dela gogoratu zuten antolatzaileek zein Berrizko alkate Orland Isoirdek.

**ORDUTEGIA - ABENDUAK 24**

**09:00** Master 30-40-50-60.
**10:00** Kadeteak.
**11:00** Junior mutilak / junior, elite , 23 urtez azpiko neskak.
**12:00** Eliteak eta 23 urtez azpikoak gizonetan.

**AGENDA**

**> FUTBOLA**

OHOREZKO MAILA (gizonak)

**Iurretako - Elorrio**
· Abenduaren 31n, 11:30ean, Larrakozelaian.

MAILA GORENA (gizonak)

**Abadiño - Arratia**
· Abenduaren 31n, 11:00etan, Astolan.

HIRUGARREN ERREGIONALA (gizonak)

**Kultural B - Basauri**
· Abenduaren 30ean, Tabiran.

**Durangoko Bikainak - San Miguel**
· Abenduaren 31n, 15:00etan, Tabiran.

**> PILOTA**

OLAZAR PILOTA TXAPELKETA (finala)

**Binaka:**
**Urretabizkai - Garmendia / Larrañaga - Perez**
· Abenduaren 31n, 16:30ean, Zaldibarko pilotalekuan. Aurretik lau t'erdiko finala jokatuko dute.

BIZKAIKO TRINKETE TXAPELKETA (finala)

**Kadeteak:**
**- Azkueta - Argaluza**
**Gazteak:**
**- Ziarrusta - Arana**
**Nagusien bigarren maila:**
**- Bikuña - San Sebastian**
· Barikuan, 18:30ean, Abadiñoko Tornosolo trinketean.
**Nagusien lehenengo maila:**
**- Aspuru - Ugarte**
· Abenduaren 30ean, 18:30ean, Abadiñoko Tornosolo trinketean.

## Gaztetxoen futbol torneo bana Berrizen eta Abadiñon

> **FUTBOLA** J.D.

Abadiño Kirol Elkarteak abenduaren 27tik 28ra eta Berriz Kirol Klubak urtarrilaren 7tik 8ra, umetxoen futbol torneo bana antolatuko dute.

Abadiñoko kimu mailako torneoak hirugarren aldia egingo du, eta 24 taldek parte hartuko dute Astola futbol zelaian. Torneoa fase bitan banatu dute. Abenduaren 28ko (16:00etatik 20:00etara) bigarrenean sartuko dira lehian Abadiño, Athletic Club eta Eibar taldeak, besteak beste.

Berrizko torneoa bigarrenez antolatuko dute. Benjamin mailakoa izango da, eta 20 talde batuko ditu Berrizburu futbol zelaian. Berrizek hiru talde aurkeztuko ditu torneora. Durangaldeari dagokionez, Elorrio kirol klubak ere parte hartuko du talde bategaz. Athletic Club, Antiguoko, Baskonia, Gernika eta Getxo dira torneoan parte hartuko duten beste taldeetako batzuk.

## Urretabizkaia-Garmendia ere Olazarreko finalera

Larrañagaren eta Perezen kontra jokatuko dute

> **PILOTA** J.D.

Olazar pilota txapelketako binakako finala erabakita dago: Mikel Larrañagak eta Miguel Perezek Beñat Urretabizkaiaren eta Garmendiaren kontra jokatuko dute. Azken hauek joan zen eguenean lortu zuten finalerako sailkapena Igor Azpiri elorriarra eta Joseba Sarasa 22-9 menderatuta. Irabazleak partidu osoan zehar gehiago izan ziren, eta emozio handirik bako finalerdia izan zen.

Lau t'erdian Peio Etxebarria ere finalerako sailkatuta dago, Iker Espinali 22-19 irabazita. Kaiolako bigarren finalderia atzo jokatu zuten Iker Salaberriak eta Adonis Gelisek.

Finalak abenduaren 31n jokatuko dituzte, arratsaldean.

## Aspuru, Arana eta Bikuña Bizkaiko txapelaren bila

> **TRINKETA** J.D.

Gaur eta abenduaren 30ean Bizkaiko trinkete txapelketako finalak jokatuko dituzte Abadiñoko Tornosolo trinketean. Gaur, 18:30etik aurrera, Jon Arana abadiñarra (Atxarte kluba) gazte mailako txapelaren bila irtengo da Lur Ziarrustaren aurka. Partidu horren ostean, Xabier Bikuña elorriarrak (Hori Hori kluba) Urdulizko Josu San Sebastian izango du aurkari nagusien bigarren mailako finalean. Lehen mailako finala abenduaren 30ean, 18:30ean, jokatuko dute eta Asier Aspuru abadiñarra (Atxarte) izango da protagonistetako bat. Inhar Ugarte izango du aurkari.

# Zornotzak hartuko du Master Cup-aren finala

Martxoan, emakumeen egunaren astean izango da

> **PILOTA** J.D.

Emakumeen binakako esku pilota txapelketak hirugarren aldia egingo du aurten, eta finalak Zornotzako pilotalekuan jokatuko dituzte. Martxoaren 5ean izango da, Emakumeen Nazioarteko Egunaren astean.

Txapelketa maila bitan jokatuko dute. Lehenengo fasea 2017ko urtarril eta otsail bitartean izango da. Txapelketan emakume pilotari guztiek parte hartu dezakete, federatuek zein federatu gabeek. Maite Ruiz de Larramendi, Maider Mendizabal, Amaia Araiztegi eta iazko txapeldunetako bat, Patri Espinar, arituko dira, besteak beste. Izena emateko epea zabalik dago, abenduaren 31ra arte (*www.emakumemastercup.eus*)




Aurten hirugarren aldia izango du Emakumeen Master Cup txapelketak.

# GREMIOEN GIDA

## ITURGINTZA

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.
Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

## LEIHOAK

Leihoak
ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA
Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango
Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com

## ARKITEKTURA

ARKI TEK SAN
· OBREN ZUZENDARITZA
· PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
· ERREFORMA ETA GARAPENERAKO NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
· ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
· NEURKETAK, PLANOAK ETA AURREKONTUAK EGITEA
· ERAGINKORTASUN ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12, ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM

## ZURGINTZA

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK
Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

## DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak
Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
Pintura eta pintura apaingarria.
Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.
Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

## GARBIKETA

AZKARGI GARBIKETAK
Auzo elkarte, garaje eta obra osteko garbiketak
Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

**Profesional onenak zure zerbitzura!**

# Inmobiliariak

AMBOTO INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

## ETXEBITZAK ALOKAIRUAN

**DURANGO**. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO**. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO**. Errotaritxuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO**. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO**. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

**DURANGO**.-Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO**. ARTEKALE. Azken etxebizitzak, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

**LEKEITIO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO**. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO**. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO**. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO**. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR**. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO**. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ**. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA**. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO**. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA**. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA**. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA**. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ**. Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO**. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ**. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA**. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO**. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

**BERRIZ**. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobeak.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### TROMPERRI



• 99 m2 eraikita. 4 logela, egongela zabala, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Kanpora begira. Ikuspegi onak eta eguzkitsua. Etxebizitzak terraza komunitarioa dauka teilatuan. Honez gain, txoko komunitario handi bat ere badauka. **220.000€**.

### MATIENA



• 92,8 m2 erabilgarri. 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela dena jarrita, balkoia eta ganbara. Oso eguzkitsua. **210.000€**.

### SASIKOA



• 65 m2 erabilgarri. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun bat. Dotorea! **195.000€**.

### ABADIÑO



• Babes ofizialeko etxebizitza altzariz hornituta. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, balkoia. Garajea eta trastelekua. Guztia jarrita. **179.000€**.

### BARRENKALE



• 60 m2-ko etxebizitza. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, Komuna. Oso argitsua. Igogailua. Guztiz berriztatua, hobekuntza askorekin. Bisitatu ezazu, gustatuko zaizu! **166.000€**.

### ARAMOTZ



• 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Teilatua berrituta. Instalazio elektrikoa jarrita. Egoera oso onean **109.000€** / Negoziagarria

**www.inmoduranguesado.com**

ETXETXO G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

## AUKERA

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. 80.000€.
- IURRETA. 3 logela. Komuna. Egongela. Terraza. Igogailua. 85.000€.
- MATIENA. 3 logela. Komuna. Berriztatua. 2 Balkoi. Eguzkitsua. 143.000€.
- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Dena berriztatua. 115.000€.
- DURANGO 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. 85.000€.
- IURRETA. Maspe. 3 logela. Berogailua. Igogailua. 110.000€.
- BERRIZ. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Balkoia. Igogailua. Guztia berriztua. 115.000€.
- MASPE. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Dena berriztatua. 104.000€.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- IURRETA. ESTRENATZEKO. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekitokia. Egongela. Terraza. Ganbara. Garajea itxita. 259.000€.
- BASERRIA. Berriztatua. 295 m2. 395.000€.
- BASERRIA. Sarria. Familiabakarrrekoa. 377 m2. Berriztatua. Lursailarekin. 8.000m2.
- ABADIÑO. KAMIÑOPEA. 3 logela. 2 komun. Ganbara. Alokairua erosteko aukerarekin. 130.000€.
- Barrenkale. Guztia berria. 2 logela. Komuna. Sukaldea-egongela. Eguzkitsua. Igogailua. 166.000€.
- ARANDOÑOTORRE 3 logela. Komuna. Egongela terrazarekin. Trastelekua. Dena berria. 196.000€.
- Erdialdean. 134m2. 4 logela. 2 Komun. Egongela zabala. Sukaldea esekitokiarekin. Garajea. 215.000€.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 Terraza. Igogailua. 135.000€.
- ZALDIBAR. Erdialdean. Erdi berria. 45 m2-ko terraza. 2 logela. Komuna. Egongela. Garajea itxita. 148.312€.
- M. TORRE. 113 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. 220.000€.
- ANDRA MARI. 112 m2. 4 logela. Egongela. Trastelekua. 140.000€.
- F.J. ZUMARRAGA. 110 m2. 4 logela. Sukaldea-despentsa. Egongela. Galeria. 169.000€ (negoziagarria)
- C/ ASKONDO. 95m2. 3 logela. Komuna. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Eguzkitsua. Berriztatua 195.000€ neg.
- ATIKOA. Terraza eta guzti, 80 m2. 3 logela. 2 Komun. Egongela. Sukaldea. Esekitokia. Trastelekua eta Garajea. 250.000€.
- J. M. ALTUNA. 100 m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea Esekitokia. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. 269.000€.
- SAN ROKE: BERRIA. Pisu altua, 80 m2-koa. 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela zabala. Ganbara. Garajea aukeran. 247.000€.
- SAN AGUSTINALDE. Erdialdean. 103 m2. Berriztua. 3 logela. Komuna. Terraza. 260.000€.
- MATIENA. 3 logela. Komuna. 158.000€.
- F.J. ZUMARRAGA. 100 m2. 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.
- ABADIÑO. Erdi-berria. 83m2. 2 logela. Komuna. Egongela. Terraza. Sukaldea. Trastelekua. Garajea. 164.000€.

## LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN

- ABADIÑO. Ile-apiandegia. 50m2. ALOKAIRUA.: 600€. SALMENTA: 75.000€.
- ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
- F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114m2. SALMENTA. 150.000€.
- SAN FRANCISCO. 160 m2. Egokitua. 210.000€.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.**
**www.inmoetxetxo.com**

ALOKAIRUAN ETA SALGAI DITUZUN HIGIEZINEN BERRI EMAN NAHI AL DUZU?

Anbotok tarte hau eskaintzen dizu

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

## Higiezinak

### PISUA KONPARTITU

#### PISUKIDE BILA

**Atxondo.** Arrazolako auzoan dagoen etxe eder batean hiru lagun feminista bizi gara, laugarren batentzako lekua dugu. Alokairua 230 euro dira, gastuak barne. Etorri konpromisorik gabe etxea ikusi eta gu ezagutzera. Tel.: 650-90 14 91 / 605-75 39 66.

### LOKALAK

#### SALDU

**Berriz.** Berrizen 60 m2-ko lokal komertziala salgai. Tel.: 620-77 39 47.

### GARAJE / TRASTEROAK

#### SALDU

**Durango.** Auto birako garaje-plaza itxia salgai Montevideo kalean. Tel.: 670-80 92 25.

**Iurreta.** 17,5m2-ko garaje itxia salgai Fray Juan Askondo kalean (0. solairuan). Kotxea eta motorra sartzeko ezin hobea. Prezioa: 35.000 euro negoziagarriak. Informazio gehiago edukitzeko edo ikusteko, deitu 658-73 87 18 telefonora (gauez).

**Otxandio.** Otxandion garaje itxia saltzen da. Tel.: 675-71 72 83.

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Durangon garajea alokatzen da, trasteleku eta guzti. Euskaltel denda ondoan. Tel.: 676-97 95 77.

## Teknologia

### GAINERAKOAK

#### SALDU

**Sega-makina salgai.** Sega-makina txikia salgai. Fruta artean ibiltzeko erosoa. Egoera onean. Tel.: 946-82 45 90.

## Lana - negozioak

### LAN ESKARIAK

#### ETXEKO LANAK

**Zaldibar.** Zaldibar. Garbiketan lan bila nabil. Emakume arduratsua, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-18 42 09.

**Durangaldea.** Garbiketan lan bila nabil. Esperientziaduna naiz. Orduka, gauez zein asteburuetan. Tel.: 632-29 70 30.

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Asteburuetan ere lan egin dezaket. Tel.: 632-03 27 98.

**Durangaldea.** Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 632-84 30 26.

**Durangaldea.** Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Berehala hasteko moduan nago. Tel.: 602-81 24 42.

**Durangaldea.** Mutil gaztea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen baserrietan. Janaria prestatzen dakit. Baserriko lanak egin ditzaket. Berehala has naiteke. Tel.: 602-64 87 33.

**Durangaldea.** Arratoi-txakurrak oparitzen ditut. Politak eta argiak dira. Tel.: 602-45 71 69.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen mutil bat naiz. Barneko zein kanpoko langilea. Baserrietara joan naiteke. Tel.: 631-63 27 43.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barruko edo kanpoko langilea. Asteburuetan ere bai. Tel.: 632-03 27 98.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 631-93 42 55.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-46 52 44.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 631-11 98 45.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Arratsaldetan eta gauetan. Tel.: 658-99 50 63.

**Durangaldea.** Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Berehala hasteko moduan nago. Tel.: 602-81 24 42.

**Durangaldea.** Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Berehala hasteko moduan nago. Tel.: 632-88 97 96.

**Durangaldea.** Lan bila nabil barneko edo kanpoko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka eta asteburuetan ere bai. Esperientziaduna. Erreferentzia onak. Tel.: 630-56 65 56.

**Durangaldea.** Matienako jatetxe batean zerbitzaria behar da. Asteburuetarako bakarrik. Jantokian esperientzia izatea kontuan hartuko da. Tel.: 690-37 67 48.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Jai egunetan eta asteburuetan ere lan egin dezaket. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 631-30 32 11.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko eta kanpoko langilea. Tel.: 622-62 32 16.

**Durangaldea.** Barruko edo kanpoko langilea, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziaduna. Tel.: 631-95 28 27.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, barruko edo kanpoko langile moduan. Gauetan eta ospitaletan ere bai. Tel.: 632-57 31 80.

**Durangaldea.** Esperientzia duen emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ditut. Tel.: 634-78 16 70.

**Durangaldea.** Barruko edo kanpoko langilea. Garbiketan ere jarduten dut. Erreferentzia onak. Tel.: 632-50 63 82.

**Durangaldea.** Lan bila etxeak garbitzen zein nagusiak edo umeak zaintzen. Esperientziazgaz eta erreferentziekin. Tel.: 622-41 75 28.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Orduka zein asteburuetan. Tel: 612-49 25 19.

#### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Neska euskalduna, medikuntzako 6. mailako ikaslea, eskola partikularrak emateko prest. 8 urtez eskolak ematen aritua, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan zein batxilergoan eman izan ditut klaseak, ia arlo guztietan. Edozein zalantza dela medio, deitu edo idatzi beldurrik gabe! Tel.: 652-74 17 48.

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Neska euskalduna lan bila, umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Goizetan zein arratsaldetan lan egiteko prest. Tel.: 636-51 59 95.

**Durangaldea.** Lan bila nabil hainbat eginkizunetan: enpresa bateko zaintzaile, baserriko lanak egiten, herrilanetan, mendiak garbitzen... Esperientzia handia. Tel.: 602-85 05 05.

**Durangaldea.** 55 urteko gizonak bere burua eskaintzen du Olentzero moduan aritzeko, dohainik egiteko prest. Tel.: 651-36 97 69.

### NEGOZIOAK / TRASPASOAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durangaldea.** Askatasun etorbidean kafetegi bat alokatzen da. Ez dauka traspasorik. Berriztuta dago. Tel.: 610-41 55 11 (Ainhoa).

## Denetarik

### SALDU / EROSI

**Ahuntz azpigorria salgai.** Ahuntz azpigorriak saltzen ditut. Gazteak. Ernari. Tel.: 695-78 78 99.

**Aker azpigorria salgai.** Lau urteko aker azpigorria salgai. Tel.: 695-78 78 99.

**Arrain-ontzia salgai.** Arrain-ontzi bat salgai 60 eurogatik. Arrain-ontziaren barrukoa, bi arrain (beltza eta laranja), harriak, arrain jolasak, ordezko iragazkiak oparitzen dira. Tel.: 656-77 93 29.

### EMAN / HARTU

**Liburuak erregalatzen ditut.** Nahi duenari erregalatu egingo nizkioke: larousse entziklopediako tomo guztiak, historia unibertsalekoak, eleberriak... Gaztelaniaz dira. Tel.: 606-50 75 23.

## Aisia - kirola

### KIROLAK

#### AURKITU

**Zumba monitorea behar da.** kiroldegian, zumba ikastaroak emateko monitorea behar da. Goizez edo arratsaldez. Tel.: 943-17 98 48/ 699-25 04 49.

## Familia - etxea

### HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

#### SALDU

**Ume 2 eramateko aulkia.** Ume bi eramateko aulkia saltzen da. Oso egoera onean dago. Amortiguazioa eta disko-balazta ditu. Aulkiarekin batera kapazu bat ere badago. 2 zaku eta maclaren aulki bat (bikotza) oparitzen da. Tel.: 635 754 962

### GAINERAKOAK

#### EMAN

**Artzain-txakurkumea.** Artzain-txakurkume eme bat oparitzen dut. Tel.: 616-93 63 51 (Manu)


Anbotoren lagunak
Lekuan lekuko lagunak




www.anboto.org · Tel.: 946 816 558

Zorionak Anbotoren lagunak zozketako irabazleoi!



· Sara Baños · M Begoña Zenikaonandia · Maider Nuñez · Aitor Aulestiarte · Maialen Gaztelu-Urrutia
· Juan Carlos Arriaga · Elixabete Goenaga · Unai Iturriaga · Juanjo Salterain · Iker Berra
· Mila Basaguren · Aitor Unzueta · Rosa M. Ardanza · Aritz Maldonado · Ziortza Jaio ·

# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Abenduaren 23an, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean**

## Belako

Besteak beste Mexikora ere eraman dituen biraren amaierarako prestatu dituzten lau kontzertuetako bat Elorrioko Gaztetxean eskainiko du Mungiako laukote gazteak. Beraien etxetik are hurrago emango dute, urtarrilaren 21ean, aurten kaleratu duten 'Hamen' diskoaren aurkezpen birako azken kontzertua: Gernikako Iparragirre elkartean joko dute.

## Erakusketa

**:: BERRIZ**

ABENDUAREN 23ra arte

Argazki lehiaketako lanen erakusketa.

**:: DURANGO**

ABENDUAN ZEHAR

'Bainera bete itsaso' ipuinaren erakusketa, Arteka liburu-dendan.

URTARRILAREN 8ra arte

Christine Etcheversen lanak, Arte eta Historia Museoan.

**:: ELORRIO**

ABENDUAREN 29ra arte

Ertibil erakusketa, Iturri kultur etxean.

**:: ZORNOTZA**

ABENDUAREN 31ra arte

De Pedro argazkilarien erakusketa, Zelaieta zentroan.

## Aurkezpena

**:: DURANGO**

ABENDUAREN 30ean

**19:00etan,** 'Bainera bete itsaso' ipuinaren aurkezpena, Arteka liburu-dendan.

## Musika

**:: DURANGO**

ABENDUAREN 23an

**20:00etan,** Gabonetako organo kontzertua, Andra Marian.

ABENDUAREN 29an

**20:00etan,** Kantulagun, Plateruenean.

URTARRILAREN 7an

**20:30ean,** Joseba Tapia eta Besamotzak, Plateruenean.

**:: ELORRIO**

ABENDUAREN 23an

**23:00etan,** Belako, Gaztetxean.

ABENDUAREN 24an

**00:00-06:00,** Fernando Carvalho eta Yon Summum Art DJak, Gaztetxean.

**:: ZORNOTZA**

ABENDUAREN 23an

**21:00etan,** Musika eskolakoen gabonetako kontzertua, Zornotza Aretoan.

## Antzerkia

**:: ATXONDO**

URTARRILAREN 3an

**17:00etan,** Mu eta Zu umeentzako antzezlana, Axpeko frontoian.

**:: ELORRIO**

ABENDUAREN 23an

**22:00etan,** Nano Cabaret, Arriolan.

ABENDUAREN 29an

**18:00etan,** Pupu eta Lore aitona Manolorekin, Arriolan.

**:: ZORNOTZA**

ABENDUAREN 29 eta 30

**19:00etan,** Pintto Pintto, Zornotza Aretoan.

## Zirkua

**:: DURANGO**

ABENDUAREN 28, 29 eta 30ean

**18:00etan,** Maluta, San Agustinen.

## ABENDUKO AGENDA

Iurreta Elizateko Udala

**24** — **OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI HARRERA**
FRONTOIA
**12:00** Otzararen zozketa eta lehiaketaren sari-ematea. Jarraian, OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI harrera. Bukatzean, ume guztiak batera direla, familia argazkia aterako da. Ondoren, KALEJIRA TRIKITILARIEKIN herriko kaleetatik zehar. Zatoz baserritar jantzita!

**26 27 28** — **UMEENTZAKO GABONETAKO PARKEA**
FRONTOIA
**11:30-13:30 / 17:00-20:00** Ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak.

**28** — **ZALDAI MENDI ELKARTEA - GOIURIA KULTUR GUNEA**
**19:00-20:00** Bazkide egiteko federatzeko tramiteak.

**29** — **GABONETAKO TAILERRAK**
ANIMALITEGIA sormen tailerra
**10:00-11:30** 3-7 urte bitartekoak (3-4 urtekoak, lagunduta).
**11:30-13:00** 8-12 urte bitartekoak.

**2** — **GABONETAKO TAILERRAK**
TIK TAK sormen tailerra
**10:00-11:30** 3-7 urte bitartekoak (3-4 urtekoak, lagunduta).
**11:30-13:00** 8-12 urte bitartekoak.

**3 4** — **GABONETAKO TAILERRAK**
DANTZA MODERNO tailerra
**10:00-11:15** 5-8 urte bitartekoak (3-4 urtekoak, lagunduta).
**11:30-12:30** 9 urtetik aurrera.



**Abenduaren 29 eta 30ean, 19:00etan, Zornotzan**

## Pintto Pintto

Ikuskizuna sortu eta estreinatu zuten antzokira bueltatuko da 2016. urte honen amaieran Anita Maravillas talde zornotzarra. Hiru urtetik gorako umeei zuzenduriko 'Pintto Pintto' antzezlanaren bi emanaldi eskainiko dituzte abenduaren 29an eta 30ean.

**:: DURANGO**
ZUGAZA

**¡Canta!**

- **barikua 23:** 19:30-22:00
- **zapatua 24:** 17:00
- **domeka 25:** 18:30-21:00
- **astelehena 26:** 18:30-21:00
- **martitzena 27:** 17:30-20:00

**Assassins Creed**

- **barikua 23:** 19:30-22:00
- **zapatua 24:**17:00
- **domeka 25:** 18:30-21:00
- **astelehena 26:** 18:30-21:00
- **martitzena 27:** 17:30-20:00
- **eguaztena 28:** 20:00

**Belleza oculta**

- **barikua 23:** 19:30-22:00
- **zapatua 24:** 17:00
- **domeka 25:** 18:30-21:00
- **astelehena 26:** 18:30-21:00
- **martitzena 27:** 17:30-20:00

**Como reinas**

- **eguaztena 28:** 20:30

**:: ELORRIO**
ARRIOLA

**Sully**

- **domeka 25:** 20:00
- **astelehena 26:** 20:00

**Amor y amistad**

- **domeka 1:** 20:00
- **astelehena 2:** 20:00

**:: ZORNOTZA**
ZORNOTZA ARETOA

**1898. Los últimos de Filipinas**

- **domeka 25:** 20:00
- **astelehena 26:** 20:15

## ZUZENKETA

ANBOTOren 2017ko egutegian otsaileko orrialdean Zaldibarko dorretxearen argazkia agertzen da. Argazki horren egilea ez da Nerea Urizar argazki oinean agertzen den bezala. Argazki horren egilea Nerea Ayarzaguena da.

## > BOTIKAK

**BARIKUA, 23**
09:00-09:00

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ZAPATUA, 24**
09:00-09:00

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño

**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz

**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**DOMEKA, 25**
09:00-09:00

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 26**
09:00-09:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTITZENA, 27**
09:00-09:00

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUAZTENA, 28**
09:00-09:00

**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUENA, 29**
09:00-09:00

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## > ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea

Gozotegia gozatu Okindegia
Ermodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



> **Mari**k eta **Xane**k bost urte beteko dabez abenduaren 28an. Neska handiak egin jakuz konturatzerako! Mosu erraldoi bana etxekoon partez.



> **Telmo**k, abenduaren 27an 5 urte egiten ditu. Zorionak Xabier eta familia guztiaren partez. Ondo pasa.



> Matienako **Maider** zoriondu nahi dogu, abenduaren 23an 10 urte egin dauz eta. Zorionak maite zaitugun danon partez.



> Zapatuen **Araia**k, gure etxeko printzesak, 7 urte beteko dauz. Ederto pasau zure egune. Mosutxu potolo bat Amets, aitatxo ta amatxon partez. Horrela jarraitu!



> Gure bizipozak 4 urtetxo beteko ditu abenduaren 26an. Zorionak, **Eneko,** etxeko guztion partez, asko maite zaitugu!



> Eskerrik asko Berrizko herri guztiari, zuei esker 10.800 euro batu ditugu tonbola solidarioan. Jai zoriontsuak izan ditzazuela.




MIREN RODRIGUEZ

### Ultraizoztu prozesua

Berdurak izozteko prozesua berezia izaten da, eta zorrotz zaintzen dituzte beren ezaugarri guztiak. Bildu ondotik, lantegietara eramaten dituzte eta han garbitu egiten dituzte, jateko moduan ez dauden zati guztiak kendu eta lur eta zikin arrastoak desagerrarazteko. Ondoren, zuritu edo galdarraztatu egiten dituzte; hau da, ur irakinetan sartzen dituzte tarte labur batez. Metodo horri esker, higienizatu egiten dira berdurak (desagerrarazi egiten dira kaltegarriak izan daitezkeen mikrobioak) eta jarduerarik gabe uzten dira berduren entzimak (substantzia horiek azkartu egiten dute berdurak hondatzeko prozesua, eta horien erruz azaltzen dira gune arreak, zati guriak eta urtsuak). Era horretan, berdurak hobeto kontserbatzea lortzen da. Ur irakinetan sartzen dituztenean, galdu egiten dira zenbait bitamina (C eta B multzokoak, B1, B2, B3, B6 eta B9), nahiz eta galera askoz txikiagoa den berdura freskoak gorde eta banatu bitartean gertatzen dena baino. Azken pausoa berdurak izoztea edo ultraizoztea izaten da. Inkestari erantzun dioten herritarren %64k ez dakite prozesu hori nolakoa izaten den ere. Hain zuzen, %21ek uste dute prozedura horretan berdurek galdu egiten dituztela mantenugaiak, mineralak edo bitaminak (ez da horrela), eta erdien iritziz, berdura freskoek eusten diete ongien bitaminei eta mantenugaiei. Jakin beharrekoa da, ordea, ultraizozteko prozesuak aldaketa gutxiago eragiten dituela elikagaiaren egituran, sortzen diren izotz beirak mikroskopikoak izaten direlako, hau da, mantso izozten direnean sortzen direnak baino askoz txikiagoak.

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ




Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

## Akuilua

**Miren Manzisidor Mugerza** (1983) **eta Gaizka Mendiola Agirre** (1978) | Euskaltzaleak | Durango

# *“Proiektu berri honetara ahalik eta euskaltzalerik gehien batzea da helburua”*

Berbararoren txokoko bazkideetariko batzuek proiektu berri bati ekin diote; 32 bazkide dira gaur egun

**> AKUILUA** Aitziber Basauri

**Berbarok txokoa itxi behar izan du aurten. 20 urtetik gora dira zabaldu zela, eta 150 bazkide izan ditu. Orain proiektu berri bati ekin diote Berbaroren txokoko bazkideetako batzuek, Kurutziagan. Horietako bat da Gaizka Mendiola. Miren Manzisidor, berriz, orain batu da txokoen mundu honetara.**



**Zerk eraman zaituzte proiektu berri honetara?**

**Gaizka Mendiola:** Berbaroren txokoaren azkenak heldu zirenean, aukera berriak aztertzea planteatu genuen bazkideetariko batzuek. Aurretik txokoan izandako bizipenetan oinarrituta ekin diogu. Emozioen aldetik ere ukitu egin gintuen. Talde dinamikari, jende modu bati erantzun guran ekin diogu, bestela galdu egingo litzatekeelako.

**Berbarok ere parte hartuko du?**

**G. M.:** Bai, baina, Berbarokide ez diren euskaltzaleek ere parte hartu dezakete proiektu honetan. Euskaltzaleen topagunea, elkargunea izatea da asmoa.

**Txoko batera lehenengoz batu zara, MIren. Zerk animatu zaitu?**

**Miren Manzisidor:** Aspalditik izan dut txokoren batean bazkide izateko gogoa. Aukera hau etorri zait lagun batzuen bitartez, eta aukera ona iruditu zait. Are gehiago, euskal munduagaz lotutako txokoa izanda.

**Zer ekarpen nabarmenduko zenituzke zuk, Miren?**

**M.M.:** Lagunekin, familiakoekin batzeko aukera ematen du, bazkariak antolatzeko. Gainera, ni oso zalea naiz horretara. Etxean barik, txokoan elkartzeko aukera izango dut.

**Berbaroren txokoko bazkide izan zara, Gaizka, urteetan... Zer bizipen izan dituzu?**

**G.M.:** Gauza asko pasatu izan dira txoko horretan. Bizipen asko izan ditugu. Gure koadrila edo lagun taldearen lekutxoa, gure txokoa, izan da Berbaroren txokoa. Sorreran ez, baina urteetan izan naiz bazkide. Hala ere, aurretik eta hainbat bider elkartu gara bertan lagunen baten bitartez.

**Zenbat bazkide zaudete dagoeneko?**

**G.M.:** Proiektu honetan, momentuz, 32 bazkide gaude sartuta, eta aurrera egin dezan, gutxienez, 50 batzea da asmoa. Hurrengo asteetan gutxieneko kopuru hori lortzea gura genuke. Hala ere, proiektu berri honetara ahalik eta euskaltzalerik gehien batzea da helburua. Guganajo dezake parte hartu gura duenak edo *txokoa@berbaro.eus* posta elektronikora mezua bidali. Berbarora ere deitu daiteke.

**M.M.:** Txoko batean bazkide izateko aukera oso ona da, ekonomikoki arrazoizko aukera. Izan ere, askotan txoko bateko kide izatea dirutza da, eta jabetzan izaten da. Bestelako aukera da hau. Jende berria ezagutzeko aukera ematen du.

**Euskaldunok mahai baten bueltan hartzen omen ditugu erabaki inportanteak. Ados zaudete horregaz?**

**M.M.:** Egia da txokoak beti izan direla euskaldunon bilgune bat, ezta? Jatekoa behar dugu beti!

**G.M.:** Jatekorik eta edatekorik ez badago, ze erabaki mota hartu daiteke, ba? (barrez).

**Txokoetan batzeko ohitura handia dago gurean?**

**M.M.:** Bai, ohitura handia dago. Talde guztietan dago txokoren bateko kide den norbait. Nire inguruan agerikoa da; koadrilan bizpahiru dira txoko bateko bazkide.

**G.M.:** Taberna edo jatetxeetan sortu ezin diren egoerak sortzen dira txokoetan. Afalosteko mahai-ingururako biderik ez du ematen jatetxeak. Txoko batek afalosteko kantua ematen dizu, adibidez. Afalostea luzatzeko aukera.

**Janaria prestatzen trebeak zarete? Etxean baino gehiago kozinatzen dugu txokoan?**

**M.M.:** Ez!

**G.M.:** Egia esan, ez naiz oso trebea, ez! Baina, era batera edo bestera, konpontzen gara. Etxean egunero kozinatzen dut. Hala ere, hor be askorik ez!

**Zein da gustukuen duzuen platera?**

**M.M.:** Edozer da ona txoko batean jateko (barrez).

**G.M.:** Masailak egin nituen astelehenean, eta onak zeunden.

## LAUHORTZA



**AMAIA UGALDE**

Kazetaria

**Biharamuna**

Ohikoa izaten ei da AEKn, Korrika amaitu eta gero, antolatzaile bat baino gehiago gaixotzea. Egun intentsuak izaten dira Korrikakoak, emozio handikoak; urduritasuna, ezinegona, tentsioa, poza, ilusioa, euforia… Eta olatua pasa eta gero, gorputzak horrelako erreakzioak izaten ditu. Biharamuna.

Bizkaiko txapelketako finaleko bertsolariek ere biharamun berezia izango zuten aste honetan. Hutsune moduko bat barruan: “Kito, egin dut egin beharrekoa!” Bezperetako urduritasunak, egunean bertan bizitako adrenalina... amatatzen joango ziren. Antolakuntzan ibili diren guztiak ere, antzera: “Eta orain zer egingo dugu asteburuetan?” Eszenatokia muntatzeko traste guztiak maletetan gorde dituzte.

Zapore gozoko biharamuna da; kritikak etorriko dira, bai, batetik edo bestetik, baina egindako lanak eman du bere fruitua.

Gai-jartzaile taldean ibili garenok ere biharamuna dugula esango nuke. Amaitu zaizkigu martitzenetako batzarrak. Finaleko eguna handia izan zen, baina ordura arteko bidea ere ederra izan da; batzar luzeak egin ditugu bertsolariei istorioak sortzen laguntzeko abiapuntuak asmatzeko. Eta saioetan guk ere txintxaun gaineko adrenalina bizi izan dugu: esperotako erantzunak, guztiz harritu gaituztenak —desengainu batzuk ere tartean—, barreak, sorpresak…

Aste honetako biharamun luzean behin baino gehiagotan gogoratu naiz taldeko kideon zapatuko pozaz eta besarkadez. Eskerrik asko istorio eder honen sorkuntzan ibili zareten guztioi. Eta beste guztioi, urte berrirako honen antzerako biharamun ederrak opa dizkizuet!


Lekuan lekuko egutegia

ABADIÑO
ATXONDO
BERRIZ Fonda
DURANGO
ELORRIO
GARAI Herriko Taberna
IURRETA Urki
IZURTZA Herriko Taberna
MALLABIA Bastida Taberna
MAÑARIA Errekondo
OTXANDIO Danena Taberna
ZALDIBAR Imendia
ZORNOTZA Ayerdi paper-denda




anboto
Anboto Komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak
www.anboto.org